ASTARLOA KULTURGINTZA
DURANGOKO UDALA

**2021eko otsailak 9**· 9 de febrero de 2021

**LEHENDAKARIA ·** Presidenta
Ane Abanzabalegi Areitio (EH Bildu)

**BATZARKIDEAK ·** Asistentes
Mariam Bilbatua Perez (EH Bildu)
Juan Antonio Bueno (EH Bildu)
Neskutz Rodriguez (SQ-2D)
Mikel Uriguena Ruíz (SQ-2D)
Ainhoa Ortueta Etxebarria (EAJ/PNV)
Jon Sergio Atxotegi (EAJ/PNV)
Mikel Ortega Marañón (EAJ/PNV)
Fernando Castillo Rodríguez (PSE-EE)

**BERTARATU EZ DIRENAK ·** Justifica ausencia

**KUDEATZAILEA ·** Gerente

**PRESIDENTEAK BERAK GONBIDATUA ·**
**INVITADO/A A INSTANCIAS DE LA PRESIDENTE**
Arantza Arrazola , SAKGeko arduraduna/responsable de SAKG
Garazi Arrizabalaga, Museoko arduraduna / responsable Museo
Estibaliz Albizu, Liburutegiko arduraduna/responsable de la Biblioteca

**IDAZKARIA** · Secretario de la Comisión
Teresa Oleaga

**ORDEZKARI MODUAN DIHARDUENA**·
Inés Irigoras

| | |
|---|---|
| **Tokia** · Lugar: | Osoko Bilkuren Aretoa |
| **Izaera** · Naturaleza: | Ohikoa · Ordinaria |
| **Hasiera ordua** · Hora de inicio: | 17:00 |
| **Amaiera ordua** · Hora Final: | 17:30 |

Batzordeko presidenteak lehen deialdian batzarrari hasiera eman ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntuak aztertu dira:

Abierta la sesión, por la Presidenta de la Junta en primera convocatoria, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del Día y que son los siguientes:

ASTARLOA KULTURGINTZA
DURANGOKO UDALA

Batzordeko presidenteak jakinarazi duenez, mikrofonoak ez dabiltza, eta, beraz, saioa ez da grabatuko.

La Presidenta informa de que los micrófonos no funcionan y que la sesión no se grabará

**BAT.- AURREKO AKTAREN ZIRRIBORROA IRAKURTZEA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONARTZEA**

Irakurri eta gero, aho batez onartu da 2020ko abenduaren 10eko akta.

**UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DE ACTA DE LA SESION ANTERIOR**

Una vez leída fue aprobada por unanimidad el acta del 10 de diciembre de 2020

**BI.- PRESIDENTEAREN ZENBAIT EBAZPENEI BURUZKO KONTU EMATEA**

Batzordeko presidenteak honako ebazpen hauen berri eman du:

- Ordainketen ebazpena:
  - Museoko datafonoaren mantentze-kuota
  - SAKGeko datafonoaren mantentze-kuota
  - Sarrerak BBK-koak ez diren txartelekin saltzearen ziozko komisioa
  - Museorako eta Liburutegirako termometroak
  - Museorako orratzak
- Aurrekontua aldatzeko 13/2020/MC ebazpena, 2020-12-09koa
- Aurrekontua aldatzeko 14/2020/MC ebazpena, 2020-12-14koa
- Liburutegiko harrerako mostradorea egokitu eta hotzetik isolatzeko BZ2 kontrata dadin egindako ebazpena, 2020-12-14koa
- Abenduko nominak eta aparteko ordainsaria onartzeko ebazpena, 2020-12-22koa
- Aurrekontua aldatzeko 15/2020/MC ebazpena, 2020-12-23koa
- 12/2020 faktura-zerrenda onartzeko ebazpena, 2020-12-29koa
- Ordainketen ebazpena:
  - Museoko datafonoaren mantentze-kuota
  - Museoan tailerrak egiteko materiala
  - Sarrerak BBK-koak ez diren txartelekin saltzearen ziozko komisioa
  - Liburutegiko jardueren publizitatea
  - Posta-kutxaren alokairua

Jon Sergio jaunak jakinarazi duenez, kreditua aldatzeko ebazpen bat dago, Regoyosen artelan bat eros dadin, 120.000 euroko zenbatekoan. Artelanaren zenbatekoa baloratzen duen txosten teknikoa ezagutu nahi du bere talde politikoak.
Ane Abanzabalegi andreak erantzun duenez,

**DOS.- DACIÓN DE CUENTAS DE VARIAS RESOLUCIONES DE LA PRESIDENTA**

La Presidenta da cuenta de las siguientes resoluciones:

- Resolución de los pagos :
  - Cuota mantenimiento del datáfono del Museo
  - Cuota mantenimiento del datáfono de SAKG
  - Comisión venta de entradas con tarjetas distintas a la BBK
  - Termómetros para Museo y Biblioteca
  - Alfileres para el Museo
- Resolución de la modificación presupuestaria 13/2020/MC de fecha 09/12/2020
- Resolución de la modificación presupuestaria 14/2020/MC de fecha 14/12/2020
- Resolución de la contratación de BZ2 para la adaptación del mostrador de recepción de la biblioteca para aislamiento del frío con fecha 14/12/2020
- Resolución de la aprobación de la nómina del mes de diciembre y la extraodinaria con fecha 22/12/2020
- Resolución de la modificación presupuestaria 15/2020/MC de fecha 23/12/2020
- Resolución de aprobación de la relación de facturas 12/2020 con fecha 29/12/2020
- Resolución de los pagos :
  - Cuota mantenimiento del datáfono del Museo
  - Material para talleres en el Museo
  - Comisión venta de entradas con tarjetas distintas a la BBK
  - Publicidad de actividades en la Biblioteca
  - Alquiler del apartado de correos

Don Jon Sergio informa que hay una resolución de la modificación de crédito para la compra del cuadro de Regoyos por un valor de 120.000 euros y que su grupo político quiere conocer el informe técnico de la valoración del cuadro en ese importe.
Doña Ane Abanzabalegi contesta que hay un

artelanaren tasazio-txostena egon badago, eta, bertan, prezio hori adierazten da. Batzordeko kide guztiei txostena helaraziko diela gaineratu du.
Koadroa Museoan noiz egongo ote den galdetu du Fernando Castillo jaunak.
Ane Abanzabalegi andreak erantzun duenez, koadroa oraindik ez da erosi. Izan ere, Bilboko Arte Ederren Museoko erakusketa batean dago otsailaren amaierara arte eta, ondoren, Durangora etorriko da.

**HIRU.- KUDEAKETA TXOSTENA**

LIBURUTEGIA:

- Liburutegiko aforoa % 50ekoa da.
- Jarduera-talde guztiak beteta egon dira.
- Harrera berriztatzeko lanak hasita daude.
- Helduentzako ahozko narrazioko programazioa SAKGen egin da.
- Literaturako tertuliak eta prestakuntzak hasi dira ikastetxeetan.
- Otsailean, ilustrazio-ikastaroa hasiko da. Plazak beteta daude, eta itxarote-zerrenda dago.

MUSEOA:

- Urtarrilean, bisitari-kopuruari buruzko datuak ez dira onak izan. Izan ere, hil horretan herrian bizi direnek baino ezin izan dute bisitarik egin.
- Umeentzako tailerrak bertan behera geratu dira, taldeak hiru pertsonakoak izan zitezkeelako soilik.
- Humanitates-eko ikastaroak udazkenera atzeratzeko aukera planteatu da, osasun-egoerak hobera egiteko zain.
- Urtarrilean, “Foto Merino. Objektiboa Durangon” erakusketa itxi zen, 2.414 bisita jaso ondoren.
- Hil horretan bertan, Ramón Zuriarrainen “Alegiazko paisaiak eta ironiaren irudiak” erakusketa inauguratu zen.

SAKG:

- Urtarrileko ikuskizunetan % 100eko okupazioa egon da.
- Urtarrilean, Gorakada antzerki-taldearen egonaldia, helduentzako ahozko narrazio-saioak eta hainbat auzokide-erkidegoren bilerak egin dira.
- Bazkideak erakartzeko eta gaur egun dugun zerrenda eguneratzeko kanpainak martxan jarraitzen du. Momentuz, 195 bazkide heldu eta 114 bazkide gazte eta haur daude.

informe de tasación del cuadro en el que se indica ese precio y que lo hará llegar a los/as miembros de la Junta.

Don Fernando Castillo pregunta cuándo estará el cuadro en el Museo.
Doña Ane Abanzabalegi responde que el cuadro está aún sin comprar, que se encuentra formando parte de una exposición en el Museo de Bellas Artes de Bilbao hasta finales de febrero y que posteriormente vendrá a Durango.

**TRES.- INFORME DE GESTIÓN**

BIBLIOTECA:

- El aforo de la Biblioteca es del 50%
- Todos los grupos de actividades han estado completos
- La obra de la reforma de la recepción ya ha comenzado
- La programación de narración oral para adultos se ha hecho en SAKG
- Han dado comienzo las formaciones y las tertulias literarias en los centros educativos
- En febrero da comienzo el taller de ilustración. Las plazas se han completado y hay lista de espera

MUSEO:

- Los datos de enero de afluencia de visitantes no han sido buenos ya que durante este mes unicamente han podido visitarlo los residentes en el pueblo
- Los talleres para niños/as se ha suspendido ya que los grupos sólo pueden ser de tres personas
- Los cursos de Humanitates se está pensado aplazarlos al otoño en espera de que la situación sanitaria mejore
- En Enero se clausuró la exposición “Foto Merino. Objetivo Durango” recibiendo 2.414 visitas
- El mismo mes se inauguró la exposición “Paisajes imaginarios y figuras de la ironía” del artista Ramón Zuriarrain

SAKG:

- Los espectáculos de enero han tenido una ocupación del 100%
- En enero ha habido una residencia de Gorakada antzerki taldea, sesiones de narración oral para adultos y varias asamblea de comunidads de vecinos
- Se continúa con la campaña de capatación de socios/as y la actualización del listado que se posee al día de hoy. De momento las cifras son de 195 socios/as adultos y 114 socios jóvenes y niños/as

Ane Abanzabalegi andreak galdetu du ea zalantzarik dagoen arloetako bakoitzean 2020. urtean egondako jarduera eta ikusleen gaineko laburpenei buruz bidali diren txostenen gainean.

Arantza Arrazola andreak barkamena eskatu du txostena bidali ez duelako, ez baitu denborarik izan. Laburpen txiki bat egin du.

Aurten Topaklownekin zer gertatuko den galdetu du Jon Sergio jaunak.

Arantza Arrazola andreak erantzun duenez, Topaklown ezin izango da egin gaur egun arte bezala. Hori dela eta, lanean ari dira data horietan umorearekin lotutako beste jarduera batzuk egin ahal izateko.

Formatu txikiagoan antzeko zerbait egin ahalko litzatekeen galdetu du Jon Sergio jaunak.

Arantza Arrazola andreak erantzun duenez, arazo asko daude: non jan, non lo egon, musukoekin egin beharreko ikastaroak...

Ainhoa Ortueta andreak Garazi Arrizabalaga andreari galdetu dio ea zein publizitate-motari buruz ari den 2020. urteko bere laburpen-txostenean, emaitza oso ona izan ez zela adierazten duenean.

Museoaren gainean egin zen iragarkiaz ari dela azaldu du Garazi Arrizabalaga andreak.

Ane Abanzabalegi andreak gehitu duenez, hautatu zen formatua beharbada ez zen egokiena izan eta, ondorioz, emaitza ere ez zen ona izan.

**LAU.- GALDE-ESKAKIZUNAK**
Ez dago ez galderik, ez eskakizunik.

Eta aztertzeko gai gehiago ez dagoela ikusirik, presidenteak amaiera ematen dio batzarrari eta, nik, udaleko idazkaria naizen honek, akta jaso eta egiaztatu egiten dut.

Doña Ane Abanzabalegi pregunta si hay dudas sobre los informes que se han enviado con el resumen de actividades y de público del año 2020 de cada una de las áreas

Doña Arantza Arrazola se disculpa por no haber enviado el informe por falta de tiempo y hace un pequeño resumen.

Don Jon Sergio pregunta qué va a pasar con el Topaklown de este año.

Doña Arantza Arrazola responde que el Topaklown tal y como sa ha desarrollado hasta ahora no va a ser posible y que por ello está trabajando la idea de realizar en esas fechas actividades relacionadas con el humor

Don Jon Sergio pregunta si no habría posibilidad de hacer algo similar en formato más pequeño.

Doña Arantza Arrazola responde que es muy problemático: donde comer, donde dormir, los cursos con mascarilla.

Doña Ainhoa Ortueta pregunta a Doña Garazi Arrizabalaga a qué tipo de publicidad se refiere en su informe resumen del año 2020 en el que puntualiza que el resultado no fue muy bueno.

Doña Garazi Arrizabalaga responde que ese trata del anuncio que se hizo sobre el Museo.

Doña Ane Abanzabalegi añade que quizá el formato que se eligió no fuera el más apropiado y por ello el resultado no fue favorable

**CUATRO- RUEGOS Y PREGUNTAS**
No hay ruegos ni preguntas

No habiendo más asuntos que tratar, la Presidenta da por finalizada la sesión, levantándose la presente acta de todo lo cual yo, como Secretaria de la Comisión doy fe.

ASTARLOA KULTURGINTZA
DURANGOKO UDALA

**2021eko martxoak 29**· 29 de marzo de 2021

**LEHENDAKARIA ·** Presidenta
Ane Abanzabalegi Areitio (EH Bildu)

**BATZARKIDEAK ·** Asistentes
Mariam Bilbatua Perez (EH Bildu)
Juan Antonio Bueno (EH Bildu)
Neskutz Rodriguez (SQ-2D)
Mikel Uriguena Ruíz (SQ-2D)
Jon Sergio Atxotegi (EAJ/PNV)
Mikel Ortega Marañón (EAJ/PNV)
Fernando Castillo Rodríguez (PSE-EE)

**BERTARATU EZ DIRENAK ·** Justifica ausencia
Ainhoa Ortueta Etxebarria (EAJ/PNV)

**KUDEATZAILEA ·** Gerente

**PRESIDENTEAK BERAK GONBIDATUA ·**
**INVITADO/A A INSTANCIAS DE LA PRESIDENTE**
Arantza Arrazola , SAKGeko arduraduna/responsable de SAK
Garazi Arrizabalaga, Museoko arduraduna / responsable Museo

**IDAZKARIA** · Secretario de la Comisión
Teresa Oleaga

**ORDEZKARI MODUAN DIHARDUENA**·
Inés Irigoras

| | |
|---|---|
| **Tokia** · Lugar: | Osoko Bilkuren Aretoa |
| **Izaera** · Naturaleza: | Ohikoa · Ordinaria |
| **Hasiera ordua** · Hora de inicio: | 16:00 |
| **Amaiera ordua** · Hora Final: | 16:30 |

Batzordeko presidenteak, lehen deialdian, batzarrari hasiera eman ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntuak aztertu ditu:

Abierta la sesión, por la Presidenta de la Junta en primera convocatoria, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del Día y que son los siguientes:

Ane Abanzabalegi andreak jakinarazi duenez, Batzorde hau martxoaren 9an egin behar zena zen. Berak utzi zuen bertan behera, arrazoi pertsonalak tarteko. Jakinarazi duenez, gainera, Ainhoa Ortueta andreak bilerara bertaratu ezin izango dela azaldu du.

Doña Ane Abanzabalegi informa que esta Junta es la que se tenía que haber celebrado el 9 de marzo y que ella misma suspendió por motivos personales. También informa de que Doña Ainhoa Ortueta había comunicado que no podría acudir a la reunión

**BAT.- AURREKO AKTAREN ZIRRIBORROA IRAKURTZEA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONARTZEA**

Irakurri eta gero, aho batez onartu da 2021ko otsailaren 9ko akta.

**UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DE ACTA DE LA SESION ANTERIOR**

Una vez leída fue aprobada por unanimidad el acta del 9 de febrero de 2021

**BI.- PRESIDENTEAREN ZENBAIT EBAZPENEI BURUZKO KONTU EMATEA**

Batzordeko presidenteak honako ebazpen hauen berri eman du:

- Ordainketen ebazpena:
  - Museoko datafonoaren mantentze-kuota
  - Liburutegiko publizitatea
  - Sarrerak BBK-koak ez diren txartelekin saltzearen ziozko komisioa
  - Posta-kutxaren alokairua
  - Museoan tailerrak egiteko materiala
- Abala itzultzeko ebazpena, 2021-02-05ekoa
- Darío Regoyos margolariaren artelan bat erosteko ebazpena, 2021-02-15ekoa
- 1/2021 faktura-zerrenda onartzeko ebazpena, 2021-02-15ekoa
- GLU GLU konpainiari “Botadun katua” antzezlana kontratatzeko ebazpena, 2021-02-18koa
- Gorakada teatro S.L. konpainiari “Pinocchio” antzezlana kontratatzeko ebazpena, 2021-02-18koa
- Aurrekontua aldatzeko 02/2021/MC ebazpena, 2021-02-18koa
- Histrion teatro S.L. konpainiari “La Isla” antzezlana kontratatzeko ebazpena, 2021-02-18koa
- Koleltivo Konikas konpainiari “La punta de mi nariz” antzezlana kontratatzeko ebazpena, 2021-02-25ekoa
- Ados Teatroa konpainiari “Lloviendo ranas” antzezlana kontratatzeko ebazpena, 2021-02-25ekoa
- 2016. urteko zor bat indargabetzeko ebazpena, 2021-02-23koa
- Otsaileko nomina onartzeko ebazpena, 2021-02-26koa
- Aurrekontua aldatzeko 15/2020/MC ebazpena, 2020-12-23koa
- Ordainketen ebazpena:
  - Museoko eta SAKGko datafonoaren mantentze-kuota
  - Museorako eta Liburutegirako termometroak

**DOS.- DACIÓN DE CUENTAS DE VARIAS RESOLUCIONES DE LA PRESIDENTA**

La Presidenta da cuenta de las siguientes resoluciones:

- Resolución de los pagos :
  - Cuota mantenimiento del datáfono del Museo
  - Publicidad de la Biblioteca
  - Comisión venta de entradas con tarjetas distintas a la BBK
  - Alquiler del apartado de correos
  - Material para talleres en el Museo
- Resolución de la devolución de aval de fecha 05/02/2021
- Resolución de la adquisición de una obra de arte del pintor Darío Regoyos de fecha 15/02/2021
- Resolución de aprobación de la relación de facturas 1/2021 con fecha 15/02/2021
- Resolución de la contratación de “Botadun katua” a la compañía GLU GLU con fecha 18/02/2021
- Resolución de la contratación de “Pinocchio” a la compañía Gorakada teatro S.L. con fecha 18/02/2021
- Resolución de la modificación presupuestaria 02/2021/MC de fecha 18/02/2021
- Resolución de la contratación de “La Isla” a la compañía Histrion teatro S.L.. con fecha 18/02/2021
- Resolución de la contratación de “La punta de mi nariz” a la compañía Koleltivo Konikas con fecha 25/02/2021
- Resolución de la contratación de “Lloviendo ranas” a la compañía Ados Teatroa con fecha 25/02/2021
- Resolución de anulación de una resulta del año 2016 con fecha 23/02/2021
- Resolución de la aprobación de la nómina del mes de febrero con fecha 26/02/2021
- Resolución de la modificación presupuestaria 15/2020/MC de fecha 23/12/2020
- Resolución de los pagos :
  - Cuota mantenimiento del datáfono del Museo y de SAKG
  - Termométro para Museo y Biblioteca

- Sarrerak BBK-koak ez diren txartelekin saltzearen ziozko komisioa
- Museorako linterna

❖ 2019. urteko soberakina sartzeko ebazpena, 2021-03-01ekoa

❖ 2/2021 faktura-zerrenda onartzeko ebazpena, 2021-03-04koa

Ane Abanzabalegi andreak adierazi duenez, lehendik ere bidali zitzaien Regoyosen artelanaren tasazio txostena. Azaldutakoaren arabera, koadroa dagoeneko Museoko biltegian dago, hurrengo erakusketan ikusgai jartzeko zain. Ondoren, Museoko areto egonkorraren parte izango da.

Garazi Arrizabalaga andreak gaineratu duenez, erakusketa maiatzean egingo da. Museoak erositako koadroa Regoyosek Durangon egon zen bitartean margotu zituen beste koadro batzuekin batera jarri nahi da erakusketan. Partikularrengandik, BBKtik eta Arte Ederren Museotik eratorritako koadroak izango dira.

**HIRU.- KUDEAKETA TXOSTENA**

LIBURUTEGIA:
Ane Abanzabalegi andreak jakinarazi duenez, Estibaliz Albizu andrea oporretan dago. Edonola ere, kudeaketa txostenean agertzen dira otsaileko ohiko datuak eta hil horretan egindako jarduerak, bai eta martxorako aurreikusitakoak ere.

MUSEOA:

- Otsailean, bisitari-kopuruari buruzko datuak ez ziren onak izan. Izan ere, hil horretan herrian bizi zirenek baino ezin izan zuten bisitarik egin.
- Haurrentzako tailerrak programatu ziren arren, atzeratu egin behar izan ziren, osasun-egoerak hobera egiten zuenerako. Tailerrak dagoneko hasi dira, baina ez dira gehiago programatuko harik eta jaien ondorengo osasun-egoera zelakoa den jakin arte.
- Zuriarrainen erakusketa amaitu da.
- Bi erakusketa inauguratu dira: alde batetik, “Javier Urquijo: Abstrakzio poetikoa” eta, bestetik, “Anzola, Durangoko bonbardaketa argazkitan jaso zuen Robert Capa euskalduna”.
- Azken erakusketa horrekin lotuta, lau konferentzia egingo dira.
- Hitzez eta ahotsez jardunaldiaren lehen konferentzia egin da.

SAKG:

- Otsailean, “Burdiña” ikuskizuna bertan behera geratu behar izan zen.

- Comisión venta de entradas con tarjetas distintas a la BBK
- Linterna para el Museo

❖ Resolución de la incorporación de remanente del año 2019 de fecha 01/03/2021

❖ Resolución de aprobación de la relación de facturas 2/2021 con fecha 04/03/2021

Doña Ane Abanzabalegi indica que ya se les había enviado el informe de tasación del cuadro de Regoyos y les informa de que el cuadro ya se encuentra depositado en el almacén del Museo en espera de exponerlo en una próxima exposición y posteriormente pasar a formar parte de la sala permanente del Museo.

Doña Garazi Arrizabalaga añade que la exposición se realizará en el mes de mayo y que se trata de exponer el cuadro adquirido por el Museo junto con otros cuadros pintados por Regoyos en su estancia en Durango. Estos cuadros procederán de particulares, BBK y Museo de Bellas Artes

**TRES.- INFORME DE GESTIÓN**

BIBLIOTECA:
Doña Ane Abanzabalegi informa que Doña Estibaliz Albizu se encuentra de vacaciones y que en el informe de gestión ya aparecen los datos habituales correspondientes al mes de febrero, así como las actividades realizadas en dicho mes y las previstas para el mes de marzo

MUSEO:

- Los datos de febrero de afluencia de visitantes no han sido buenos ya que durante ese mes unicamente han podido visitarlo los residentes en el pueblo
- Los talleres para niños/as programados se tuvieron que retrasar a la espera de que mejorase la situación sanitaria. Se han comenzado a realizarlos, pero no se van a programar más hasta saber después de las fiestas como queda la situación sanitaria.
- Se ha clausurado la exposición de Zuriarrain
- Se ha inaugurado la exposición “Javier Urquijo. Abstracción poética” y la de “Anzola. El Robert Capa vasco. El gudari que fotografió el bombardeo de Durango”
- Con motivo de la última exposición nombrada se van a celebrar cuatro conferencias.
- Se ha celebrado la primera conferencia de Hitzes eta ahotsez

SAKG:

- En febrero hubo que suspender la representación de “Burdiña”
- Las cesiones han sido para Gorakada,

- Lagapenak egin zaizkie Gorakadari, Liburutegiari, Andereak-i, Bilgune feministari, Udalari, Dantzaz konpainiari eta Musika Eskolari.
- Okupazio-indizeak altuak izan dira.
- Topaklown dagoeneko aurkeztu da. Umorezko ikuskizunak izango dira, eta San Agustínen eta Landako Gunean egingo dira. San Agustíneko ikuskizunak ordaindu egin beharko dira, eta gazte eta helduei zuzenduko zaizkie. Landako Guneko ikuskizunak doakoak eta ikusle guztientzat izango dira.
- Apirilerako Gure Zirkua kontratatzea aurreikusi zen arren, atzeratu egin da, karpan arazo teknikoak daudelako.

Biblioteca, Andereak, Bilgune feminista, Ayuntamiento, compañía Dantzaz y Escuela de Música

- Los índices de ocupación han sido altos.
- La presentación del Topaklown ya se ha realizado. Unicamente habrá espectáculos de humor que se representarán en San Agustín y en Landako Gunea. Los espectáculos de San Agustín serán de pago y para público joven y adulto y los de Landako gunea para todos los públicos y gratuitos
- La contratación de Gure Zirkoa, que estaba prevista para abril se retrasa por problemas técnicos en la carpa.

**LAU.- "SORKUNTZA ARTISTIKORAKO BEKA" REN AURREKONTU-ALDAKETA**

Ane Abanzabalegi andreak bertaratu diren pertsonei proposatu die soberakineko 100.000 euro Sorkuntza Artistikorako Bekaren deialdira sartzeko erabakia onar dadila. Erabaki hori lehendik ere aurreikusita zegoen udala berpizteko 2020ko planean, baina ezin izan zen burutu, denbora faltagatik. Oinarriak lantzen ari dira, baina aldizkarian argitaratu baino lehen, aurrekontu hornidura egin behar da. Hori dela eta, puntu hau ekarri da hona, bertan onar dadin.

100.000 euroko soberakina “sorkuntza artistikorako bekara” sartzeko aurrekontu-aldaketa bozkatzea erabaki da.

Bozkatu egin da, eta honako hau izan da emaitza:

- Aldeko botoak: Bildu (3); SQ-2D (2)
- Abstentzioak: EAJ-PNV (2); PSE-EE (1)

Gobernu Batzordeak, gehiengoz, 100.000 euroko soberakina “sorkuntza artistikorako bekara” sartzeko aurrekontu-aldaketa onartu du.

**CUATRO- MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA PARA LA“BECA PARA LA CREACIÓN ARTÍSTICA”**

Doña Ane Abanzabalegi propone a los/as presentes la aprobación de la incorporación de 100.000 euros de remanente para la convocatoria de una Beca para la Creación Artística que ya se contemplaba en el plan de reactivación municipal 2020, pero que no se pudo llevar a cabo por falta de tiempo. Las bases se están trabajando, pero antes de publicarlas en el boletín tiene que realizarse la dotación presupuestaria Por ello se trae este punto para su aprobación

Se eleva a votación la modificación presupuestaria (remanente) de 100.000 euros para la convocatoria de la “Beca para la creación artística”

Se procede a la votación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: Bildu (3); SQ-2D (2)
- Abstenciones: EAJ-PNV (2); PSE-EE (1)

La Junta de Gobierno, por mayoría, aprueba la modificación presupuestaria (remanente) de 100.000 euros para la convocatoria de la “Beca para la Creación Artística”

**BOST.- GALDE -ESKAKIZUNAK**

Ez dago ez galderik, ez eskakizunik.

**CINCO.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

No hay ruegos ni preguntas

Eta aztertzeko gai gehiago ez dagoela ikusirik, presidenteak amaiera ematen dio batzarrari eta, nik, udaleko idazkaria naizen honek, akta jaso eta egiaztatu egiten dut.

No habiendo más asuntos que tratar, la Presidenta da por finalizada la sesión, levantándose la presente acta de todo lo cual yo, como Secretaria de la Comisión doy fe.

ASTARLOA KULTURGINTZA
DURANGOKO UDALA

**2021eko maiatzak 11**· 11 de mayo de 2021

**LEHENDAKARIA ·** Presidenta
Ane Abanzabalegi Areitio (EH Bildu)

**BATZARKIDEAK ·** Asistentes
Mariam Bilbatua Perez (EH Bildu)
Juan Antonio Bueno (EH Bildu)
Mikel Uriguena Ruíz (SQ-2D)
Jon Sergio Atxotegi (EAJ/PNV)
Mikel Ortega Marañón (EAJ/PNV)
Ainhoa Ortueta Etxebarria (EAJ/PNV)
Fernando Castillo Rodríguez (PSE-EE)

**BERTARATU EZ DIRENAK ·** Justifica ausencia
Neskutz Rodriguez (SQ-2D)

**KUDEATZAILEA ·** Gerente

**PRESIDENTEAK BERAK GONBIDATUA ·**
**INVITADO/A A INSTANCIAS DE LA PRESIDENTE**
Arantza Arrazola, SAKGeko arduraduna/responsable de SAK
Garazi Arrizabalaga, Museoko arduraduna / responsable Museo
Estibaliz Albizu, Liburutegiko arduraduna / responsable de la Biblioteca

**IDAZKARIA** · Secretario de la Comisión
Teresa Oleaga

**ORDEZKARI MODUAN DIHARDUENA**·
Inés Irigoras

| | |
|---|---|
| **Tokia** · Lugar:<br>**Izaera** · Naturaleza:<br>**Hasiera ordua** · Hora de inicio:<br>**Amaiera ordua** · Hora Final: | Osoko Bilkuren Aretoa<br>Ohikoa · Ordinaria<br>17:00<br>17:30 |

Batzordeko presidenteak, lehen deialdian, batzarrari hasiera eman ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntuak aztertu ditu:

Abierta la sesión, por la Presidenta de la Junta en primera convocatoria, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del Día y que son los siguientes:

ASTARLOA KULTURGINTZA
DURANGOKO UDALA

**BAT.- AURREKO AKTAREN ZIRRIBORROA IRAKURTZEA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONARTZEA**

Irakurri eta gero, aho batez onartu da 2021ko martxoaren 29ko akta.

**UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DE ACTA DE LA SESION ANTERIOR**

Una vez leída fue aprobada por unanimidad el acta del 29 de marzo de 2021

**BI.- PRESIDENTEAREN ZENBAIT EBAZPENEI BURUZKO KONTU EMATEA**

Batzordeko presidenteak honako ebazpen hauen berri eman du:

- Dario de Regoyosen koadroa ordaintzeko ebazpena, 2021-03-05ekoa
- 3/2021 faktura-zerrenda onartzeko ebazpena, 2021-03-15ekoa
- Martxoko nomina onartzeko ebazpena, 2021-03-26koa
- 3-2/2021 faktura-zerrenda onartzeko ebazpena, 2021-03-31koa
- SAKGeko bazkideen kuotak itzultzeko ebazpena, 2021-03-31koa
- Ordainketen ebazpena:
  - Museoko eta SAKGko datafonoaren mantentze-kuota
  - Datafonoaren bidezko salmentaren komisioa
  - Liburutegiko DVDetarako kutxak
  - Liburutegiko tailerrerako artileak
  - Museoko tailerretarako materiala
- 2020ko faktura-zerrenda onartzeko ebazpena, 2021-04-13koa
- 4-1/2021 faktura-zerrenda onartzeko ebazpena, 2021-04-16koa
- Justifikatu beharreko ordainketa-agindu bat jasotzeko gaikuntzaren ebazpena
- Apirileko nomina onartzeko ebazpena, 2021-04-26koa
- Ordainketen ebazpena:
  - Museoko eta SAKGko datafonoaren mantentze-kuota
  - Datafonoaren bidezko salmentaren komisioa
- 4-2/2021 faktura-zerrenda onartzeko ebazpena, 2021-04-28koa

Ane Abanzabalegi andreak gogorarazi duenez, martxoaren 29ko batzarrean soberakina sartzea onartu zen, sorkuntza-bekaren oinarriak argitaratu ahal izateko. Gaur egun, oinarri horiek ia eginda daude eta laster pasatuko dira Antolakuntza Batzordetik, azken horrek irizpena eman dezan. Ondoren, maiatzeko osoko bilkurara pasatu ahalko dira.

**DOS.- DACIÓN DE CUENTAS DE VARIAS RESOLUCIONES DE LA PRESIDENTA**

La Presidenta da cuenta de las siguientes resoluciones:

- Resolución del pago del cuadro de Dario Regoyos de fecha 05/03/2021
- Resolución de aprobación de la relación de facturas 3/2021 con fecha 15/03/2021
- Resolución de la aprobación de la nómina del mes de marzo con fecha 26/03/2021
- Resolución de aprobación de la relación de facturas 3-2/2021 con fecha 31/03/2021
- Resolución de la devolución de cuotas de socios/as de SAKG de fecha 31/03/2021
- Resolución de los pagos :
  - Mantenimiento de los datáfonos del Museo y SAKG
  - Comisión venta con datáfono
  - Cajas para DVD de la Biblioteca
  - Lanas para taller de la Biblioteca
  - Material para talleres del Museo
- Resolución de aprobación de la relación de facturas del 2020 con fecha 13/04/21
- Resolución de aprobación de la relación de facturas 4-1/2021 con fecha 16/04/2021
- Resolución de la habilitación para recibir una orden de pago a justificar
- Resolución de la aprobación de la nómina del mes de abril con fecha 26/04/2021
- Resolución de los pagos :
  - Mantenimiento de los datáfonos del Museo y SAKG
  - Comisión venta con datáfono
- Resolución de aprobación de la relación de facturas 4-2/2021 con fecha 28/04/2021

Doña Ane Abanzabalegi recuerda que en la Junta del 29 de marzo se aprobó una incorporación de remanente para poder publicar las bases de la beca de creación, y que al día de hoy las bases están practicamente confeccionadas y que proximamente pasarán por la comisión de Organización para que se dictamine y puedan pasar por el Pleno del mes de mayo

**HIRU.- KUDEAKETA TXOSTENA**

LIBURUTEGIA:

- Book Trailerren V. Lehiaketako sariak banatu dira
- Irakurketa errazeko klubaren saioak

**TRES.- INFORME DE GESTIÓN**

BIBLIOTECA:

- Se ha celebrado la entrega de premios del V. Concurso de Book Trailer
- Han comenzado las sesiones del club de

hasi dira

- “Hitzez eta Ahotsez 2021” ekimenarekin lankidetzan, “Maitasunaren materia(lak)” programatu da
- Maiatzean, lehen hezkuntzako ikastetxeetan haur eta gazte literaturari eta balioetan oinarritutako hezkuntzari buruzko prestakuntza-saioak eskainiko dira

MUSEOA:

- Apirilean zehar martxan egon da Javier Urquijoren erakusketa
- Hiru hitzaldi egin dira “Anzola: Robert Capa euskalduna” erakusketaren baitan
- Ucelayren “Ehiztariaren eldarnioa” margolana zaharberritu da
- Bisita gidatuak hasi dira
- Museoen Nazioarteko Eguna dela eta, Andrés Nagelen “artistaren liburuak” egongo dira ikusgai, artista horren eskulturarekin batera
- Maiatzaren 13an, “Anzola: Robert Capa euskalduna” erakusketaren azken hitzaldia emango da
- Maiatzaren 20an, “Regoyos: Durangoko begirada inpresionista” erakusketa inauguratuko da. Bertan, Museoak erositako artelana ikusi ahal izango da: “Merkatua Durangon”

Regoyosen erakusketa noiz arte egongo den galdetu du Ainhoa Ortueta andreak. Abuztura arte egongo dela erantzun dio Garazi Arrizabalaga andreak.

SAKG:

- Topaklowneko doako ikuskizunetako ikusleen kopurua baxua izan da. Batzuetan, egindako erreserbak ez dira bete
- SAKGn egon diren ikuskizunetan, lehen saioan egindako emanaldiek harrera baxua izan dute; bigarren saioan egindakoek, aldiz, askoz harrera hobea
- Hainbat lagapen egon dira: Dantzaz konpainiako dantza-tailerrak; Liburutegiak antolatutako performance-a; Plateruenaren gaineko bi hausnarketa-talde; L`atelier-ek antolatutako dantza-azterketen hiru saio; Euskal Herrian Euskaraz elkarteak antolatutako bakarrizketa-saio bat; eta hilondoko omenaldia José Mari Uriarteri,

lectura fácil

- En colaboración con la iniciativa “Hitzez eta Ahotsez 2021 se ha programado “Maitasunaren materia(lak)”
- Durante el mes de mayo en los centros de primaria se ofrecerán sesiones formativas sobre la literatura infantil y juvenil y la educación en valores

MUSEO:

- Durante el mes de abril ha continuado la exposición de Javier Urquijo
- Tres conferencias con motivo de la exposición “Anzola: el Robert Capa vasco”
- Se ha restaurado la pintura de Ucelay “El delirio del cazador”
- Se ha comenzado con las visitas guiadas
- Con motivo del Día Internacional de los Museos se expondrán los “libros de artista” de Andrés Nagel junto a la escultura del mismo artista
- El 13 de mayo se ofrecerá la última conferencia de la exposición “Anzola: El Robert Capa vasco”
- El 20 de mayo se inagurará la exposición “Regoyos: una mirada impresionista de Durango”, pudiendose ver la obra comprada por el Museo “Mercado en Durango”

Doña Ainhoa Ortueta pregunta hasta cuando permanecerá la exposición.de Regoyos. Doña Garazi Arrizabalaga le responde que hasta agosto

SAKG:

- La afluencia a los espectáculos gratuitos durante el Topaklown ha sido baja. En muchas ocasiones las reservas realizadas no se retiraban .
- En los espectáculos exhibidos en SAKG han tenido baja aceptación los realizados en la primera sesión , y mucha mejor aceptación los realizados en el segundo pase
- Se han producido diversas cesiones: para talleres de danza a la compañia Dantzaz; performance organizado por la Biblioteca; dos grupos de reflexión en torno a Plateruena; tres jornadas de exámenes de danza organizados por L`atelier; una sesión de monólogos organizados por Euskal Herrian Euskaraz, homenaje póstuno a José Mari Uriarte organizado por Gerediaga

Gerediagaren eskutik
- Aretoko programazio egonkorra antolatzeko lanak amaitzen ari dira eta udako kale programazioa prestatzeko lanak martxan daude
- Dantza flamenkoa eta futbol biltzarra aurreikusi dira ekainerako

- Se está finalizando con la confeccción de la programación estable de sala y preparando la programamción de calle para el verano
- Danza flamenca y congreso de futbol para junio

**LAU.- GALDERAK ETA ESKAKIZUNAK**
Umeen aretoa zergatik dagoen itxita galdetu du Jon Sergio jaunak.
Estibaliz Albizu andreak erantzun dionez, alarma egoera amaitu den arren, pandemiak kalean dirau. Areto horretan umeek ez dute zertan musukorik eraman eta ezin dira irakurtzen geratu. Adierazi duenez, ez Udalak ez Eusko Jaurlaritzak ez diote agindu berririk eman neurri horiek aldatzeko.

Ane Abanzabalegi andreak gaineratu duenez, herriaren egungo osasun egoera kontuan hartu behar da. Gaur gaurkoz, oraindik ere kutsatze kasuak daude.

**CUATRO- RUEGOS Y PREGUNTAS**
Don Jon Sergio pregunta por el motivo de que la sala infantil se encuentre cerrada
Doña Estbaliz Albizu responde que aunque el estado de alarma ha terminado la pandemia continua, que es una sala en la que los/as niños/as no están abligados/as a llevar mascarilla y que no se pueden quedar a leer. Añade que no ha recibido nuevas directrices ni desde el Ayuntamiento ni desde el Gobierno Vasco para cambiar estas medidas.
Doña Ane Abanzabalegi añade que hay que tener en cuenta la situación sanitaria actual del pueblo y actualmente siguen existiendo los contagios

Eta aztertzeko gai gehiago ez dagoela ikusirik, presidenteak amaiera ematen dio batzarrari eta, nik, udaleko idazkaria naizen honek, akta jaso eta egiaztatzen dut.

No habiendo más asuntos que tratar, la Presidenta da por finalizada la sesión, levantándose la presente acta de todo lo cual yo, como Secretaria de la Comisión doy fe.

ASTARLOA KULTURGINTZA
DURANGOKO UDALA

**2021eko ekainak 15**· 15 de junio de 2021

**LEHENDAKARIA ·** Presidenta
Ane Abanzabalegi Areitio (EH Bildu)

**BATZARKIDEAK ·** Asistentes
Mariam Bilbatua Perez (EH Bildu)
Juan Antonio Bueno (EH Bildu)
Neskutz Rodriguez (SQ-2D)
Jon Sergio Atxotegi (EAJ/PNV)
Mikel Ortega Marañón (EAJ/PNV)
Ainhoa Ortueta Etxebarria (EAJ/PNV)
Fernando Castillo Rodríguez (PSE-EE)

**BERTARATU EZ DIRENAK ·** Justifica ausencia
Mikel Uriguena Ruíz (SQ-2D)

**KUDEATZAILEA ·** Gerente

**PRESIDENTEAK BERAK GONBIDATUA ·**
**INVITADO/A A INSTANCIAS DE LA PRESIDENTE**
Arantza Arrazola, SAKGeko arduraduna/responsable de SAK
Garazi Arrizabalaga, Museoko arduraduna / responsable Museo
Estibaliz Albizu, Liburutegiko arduraduna / responsable de la Biblioteca

**IDAZKARIA** · Secretario de la Comisión
Teresa Oleaga

**ORDEZKARI MODUAN DIHARDUENA**·
Inés Irigoras

| | |
|---|---|
| **Tokia** · Lugar: | Osoko Bilkuren Aretoa |
| **Izaera** · Naturaleza: | Ohikoa · Ordinaria |
| **Hasiera ordua** · Hora de inicio: | 17:00 |
| **Amaiera ordua** · Hora Final: | 17:30 |

Batzordeko presidenteak, lehen deialdian, batzarrari hasiera eman ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntuak aztertu ditu:

Abierta la sesión, por la Presidenta de la Junta en primera convocatoria, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del Día y que son los siguientes:

ASTARLOA KULTURGINTZA
DURANGOKO UDALA

**BAT.- AURREKO AKTAREN ZIRRIBORROA IRAKURTZEA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONARTZEA**

Irakurri eta gero, aho batez onartu da 2021eko maiatzaren 11ko akta.

**UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DE ACTA DE LA SESION ANTERIOR**

Una vez leída fue aprobada por unanimidad el acta del 11 de mayo de 2021

**BI.- PRESIDENTEAREN ZENBAIT EBAZPENI BURUZ KONTU EMATEA**

Batzordeko presidenteak honako ebazpen hauen berri eman du:

- Topaklownen egindako emanaldiagatik L´Arbre a vache konpainiari ordainketa egiteko ebazpena, 2021-05-07koa
- SAKGeko bazkideen kuota itzultzeko ebazpena, 2021-04-26koa
- 5-1/2021 faktura-zerrenda onartzeko ebazpena, 2021-05-13koa
- Liburutegiko langileei prestakuntza-ikastaroa egiteko baimena ematen dien ebazpena, 2021-05-24koa
- “Hnuy Illa” emanaldia Kukai Kultur Elkartea SL enpresari esleitzeko ebazpena, 2021-05-25ekoa
- “Maitasunaren itxiera” emanaldia Portal 71 producciones culturales SL enpresari esleitzeko ebazpena, 2021-05-25ekoa
- 5-2/2021 faktura-zerrenda onartzeko ebazpena, 2021-05-27koa
- Maiatzeko nomina onartzeko ebazpena, 2021-05-28koa
- Ordainketen ebazpena:
    - Museoko eta SAKGeko datafonoaren mantentze-kuota
    - BBK-ko kontuen mantentze-kuota
    - Museoaren .eus domeinuaren berritzea
    - Atzerriko konpainiari ordaintzearen ziozko banku-gastuak
    - Regoyosen erakusketaren inauguraziora gonbidatzeko txartelak
    - Museoko komunerako eskuila
    - “Burdina” ikuskizunaren publizitatea facebooken
    - SAKGeko bazkide-kuotaren itzulketa

**DOS.- DACIÓN DE CUENTAS DE VARIAS RESOLUCIONES DE LA PRESIDENTA**

La Presidenta da cuenta de las siguientes resoluciones:

- Resolución del pago a la compañía L´Arbre a vache por una representación en el Topaklown, de fecha 07/05/2021
- Resolución de devolución de la cuota de socio/a de SAKG, de fecha 26/04/2021
- Resolución de aprobación de la relación de facturas 5-1/2021 con fecha 13/05/2021
- Resolución del permiso para la realización de curso de formación al personal de la biblioteca, de fecha 24/05/2021
- Resolución de la adjudicación a la compañía Kukai Kultur Elkartea, S.L., de la representación de “Hnuy Illa”, de fecha 25/05/2021
- Resolución de la adjudicación a la compañía Portal 71 producciones culturales, S.L., de la representación de “Maitasunaren itxiera”, de fecha 25/05/2021
- Resolución de aprobación de la relación de facturas 5-2/2021 con fecha 27/05/2021
- Resolución de la aprobación de la nómina del mes de mayo con fecha 28/05/2021
- Resolución de los pagos :
    - Mantenimiento de los datáfonos del Museo y SAKG
    - Mantenimiento de las cuentas en BBK
    - Renovación del dominio . eus del Museo
    - Gastos bancarios por pago a compañía extranjera
    - Tarjetas de invitación a la inaugauración de la exposición de Regoyos
    - Escobilla para el wc del Museo
    - Publicidad en facebook del espectáculo “Burdina”
    - Devolución cuota de socio/a de SAKG

**HIRU.- KUDEAKETA TXOSTENA**

LIBURUTEGIA:

- Maileguek apur bat beherantz egiten jarraitzen dute.
- Maiatzean haur eta gazteen literaturari eta balioen hezkuntzari buruzko

**TRES.- INFORME DE GESTIÓN**

BIBLIOTECA:

- Los préstamos continúan con una ligera tendencia a la baja.
- En mayo se han ofrecido sesiones

prestakuntza-saioak eman dira lehen hezkuntzako 5 ikastetxetan.
- Maiatzean, familiei eta haurrei zuzendutako programazioa amaitu da.
- Ekainean, helduei zuzendutako jardueren programazioa amaitu da.
- Udako tailerretan izena emateko epea zabaldu da, eta talde asko dagoeneko beteta daude.

MUSEOA:
- Maiatzean amaitu dira “Javier Urquijo. Abstrakzio poetikoa” eta “Anzola: Robert Capa euskalduna” erakusketak.
- Maiatzean inauguratu da “Regoyos. Durangoko begirada inpresionista” erakusketa.
- Museoko areto bat Gerediagari utzi zaio, bozketa batzuk egiteko.
- Bi bisita gidatu egin dira historia-aretoan.
- Regoyosen erakusketari buruzko hiru tailer egin dira Jesuitas ikastetxearekin, udako tailerrak prestatzeko lagungarriak izan direnak.
- Ekainean, “Dohaintzak 2016-2021” erakusketa inauguratu da.

SAKG:
- Maiatzean honako ekintza hauek egiteko utzi da antzokia:
  - Dantza-tailerrak
  - Irakurketa publikoko bi saio
  - Bi irratsaio ikasleekin
  - Futbolari buruzko biltzar bat
  - Gorakada konpainiaren hiru entsegu
  - Zabalarrak bere ikasleentzat antolatutako antzezlan bat
  - Auzokideen erkidego baten bilera
  - BAGARA kolektiboaren hainbat entsegu
- Aretoaren okupazio-maila altua izan da maiatzean zehar.
- “Burdina” emanaldia berreskuratu da, otsailean bertan behera geratu ostean.
- Kirolenek “Futbolistok” programatzeko aukera eskaini du.
- Udako programazioan nabarmentzekoa da BAGARA dantza-taldearen emanaldia.
- Datorren astean Txillida Lekura joango da, DAGAZ dantza-proiektuan parte hartu duten herri guztiekin batera balorazioa egiteko.

formativas sobre la literatura infantil y juvenil y la educación en valores en 5 centros de primaria.
- En mayo ha finallizado la programación dirigida a familias y público infantil
- En junio ha finalizado la programación de actividades dirigidas a público adulto
- Se ha abierto el plazo para apuntarse a los talleres de verano y muchos grupos han quedado ya completos

MUSEO:
- En mayo se ha clausurado la exposición “Javier Urquijo. Abstracción poética” y la exposición “Anzola:El Robert Capa vasco”
- Se ha inaugurado en mayo la exposición “Regoyos. Una mirada impresionista de Durango”
- Se ha cedido una sala del Museo a Gerediga para realizar unas votaciones
- Se han hecho dos visitas guiadas en la sala de historia
- Se han hecho tres talleres sobre la exposición de Regoyos con el colegio de los jesuitas que han servido de base para preparar los talleres para el verano
- En junio se inaugura la exposición “Donaciones 2016-2021”

SAKG:
- Las cesiones durante el mes de mayo han sido:
  - Talleres de danza
  - Dos sesiones de lectura pública
  - Dos talleres de radio con escolares
  - Un congreso sobre futbol
  - Tres ensayos de la compañía Gorakada
  - Una función de teatro organizada por Zabalarra para su alumnado
  - Una reunión de comunidad de vecinos
  - Varios ensayos del colectivo BAGARA
- Un alto grado de ocupación de la sala durante el mes de mayo
- Se ha recuperado el espectáculo “Burdina” suspendido en febrero
- Kirolene ha ofrecido la posibilidad de programar “Futbolistok”
- Destaca en la programación de verano la actuación del grupo de danza BAGARA
- Acudirá la próxima semana a Txillida Leku a una jornada de trabajo de valoración por parte de todos los pueblos que han tomado parte en el

Fernando Castillo jaunak ez du ulertzen zergatik jartzen den emanaldietan okupazio-maila % 100ekoa izan dela, bertaratutakoen kopurua kasu bakoitzean ezberdina bada.
Arantza Arrazola andreak erantzun duenez, bizikidetza-unitateek elkarrekin egiten dituzten erosketen araberakoa da datu hori.

proyecto de danza: DAGAZ
Don Fernando Castillo no entiende como en las representaciones se pone una ocupación del 100% siendo el número de asistentes diferente.
Doña Arantza Arrazola contesta que eso depende según la compra de unidades convencionales conjuntas que se hagan.

**LAU.- LIBURUTEGIAN EGINDAKO GOGOBETETASUN-INKESTEN EMAITZA**

Estibaliz Albizu andreak azaldu duenez, Liburutegiko gogobetetasun-inkestak bi urtean behin egiten dira. 2020an egin behar zen, baina COVIDa dela eta ez zen halakorik egin. Inkesta horiek posta elektroniko bidez egiten dira, formulario bat erabilita.
Emaitzen arabera, honako datu hauek nabarmendu behar dira: batetik, liburutegiak ematen duen zerbitzuaren puntuazio orokorra apur bat igo da, eta, bestetik, instalazioen garbiketak puntuazio altua jaso du.

**CUATRO- RESULTADO DE LAS ENCUESTAS DE SATISFACCIÓN REALIZADAS EN LA BIBLIOTECA**

Doña Estibaliz Albizu explica que las encuestas de satisfacción de la Biblioteca se realizan cada dos años, que tocaba haberse realizado en el 2020, pero con el tema del COVID no se hicieron. Que se realizan a través de e-mail y mediante un formulario.

Resalta la ligera subida en la puntuación general del servicio que ofrece la biblioteca y la alta puntuación recibida por la limpieza de la instalación.

**BOST.- GALDE -ESKAKIZUNAK**

Ez dago ez galderik, ez eskakizunik.

**CINCO- RUEGOS Y PREGUNTAS**

No hay ruegos ni preguntas

Eta aztertzeko gai gehiago ez dagoela ikusirik, presidenteak amaiera ematen dio batzarrari eta, nik, udaleko idazkaria naizen honek, akta jaso eta egiaztatu egiten dut.

No habiendo más asuntos que tratar, la Presidenta da por finalizada la sesión, levantándose la presente acta de todo lo cual yo, como Secretaria de la Comisión doy fe.

ASTARLOA KULTURGINTZA
DURANGOKO UDALA

**2021eko uztailak 6**· 6 de julio de 2021

**LEHENDAKARIA ·** Presidenta
Ane Abanzabalegi Areitio (EH Bildu)

**BATZARKIDEAK ·** Asistentes
Mariam Bilbatua Perez (EH Bildu)
Neskutz Rodriguez (SQ-2D)
Jon Sergio Atxotegi (EAJ/PNV)
Mikel Ortega Marañón (EAJ/PNV)
Ainhoa Ortueta Etxebarria (EAJ/PNV)
Jesica Ruíz Pérez (PSE-EE) (Fernando Castillo Rodríguez jaunaren ordez)

**BERTARATU EZ DIRENAK ·** Justifica ausencia
Juan Antonio Bueno (EH Bildu)

**KUDEATZAILEA ·** Gerente

**PRESIDENTEAK BERAK GONBIDATUA ·**
**INVITADO/A A INSTANCIAS DE LA PRESIDENTE**
Arantza Arrazola, SAKGeko arduraduna/responsable de SAK
Garazi Arrizabalaga, Museoko arduraduna / responsable Museo

**IDAZKARIA** · Secretario de la Comisión
Teresa Oleaga

**ORDEZKARI MODUAN DIHARDUENA**·
Inés Irigoras

| | |
|---|---|
| **Tokia** · Lugar: | Osoko Bilkuren Aretoa |
| **Izaera** · Naturaleza: | Ohikoa · Ordinaria |
| **Hasiera ordua** · Hora de inicio: | 17:00 |
| **Amaiera ordua** · Hora Final: | 17:30 |

Batzordeko presidenteak, lehen deialdian, batzarrari hasiera eman ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntuak aztertu ditu:

Abierta la sesión, por la Presidenta de la Junta en primera convocatoria, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del Día y que son los siguientes:

**BAT.- AURREKO AKTAREN ZIRRIBORROA IRAKURTZEA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONARTZEA**
Irakurri eta gero, aho batez onartu da 2021eko ekainaren 15eko akta.

**BI.- PRESIDENTEAREN ZENBAIT EBAZPENI BURUZ KONTU EMATEA**
Batzordeko presidenteak honako ebazpen hauen berri eman du:
- Aurrekontu-aldaketa onartzeko 04/2021/MC ebazpena, 2021-06-01ekoa
- Museoko eta Liburutegiko gizarte-sareak kudatzeko Nerea Gastón Tabera andrea kontratatu dadila onartzeko ebazpena, 2021-06-10ekoa
- Artxiboan Stulz taldearen plaka elektronikoa ordezteko eta laguntza emateko Vasa Climatización enpresa kontratatu dadila onartzeko ebazpena, 2021-06-14koa
- 6-1/2021 faktura-zerrenda onartzeko ebazpena, 2021-06-15ekoa
- Ekaineko nomina onartzeko ebazpena, 2021-06-25ekoa
- Museoko arduradunari prestakuntza-ikastaroa egiteko baimena ematen dion ebazpena, 2021-06-29koa
- 6-2/2021 faktura-zerrenda onartzeko ebazpena, 2021-06-29koa
- Ordainketen ebazpena:
  - Museoko eta SAKGeko datafonoaren mantentze-kuota
  - Txartel bidezko kobratzen komisioa
  - Liburutegiko jardueren publizitatea facebook-en
  - Museorako argiak
  - Liburutegiko tailerrerako artileak

**HIRU.- KUDEAKETA TXOSTENA**

LIBURUTEGIA:
Ane Abanzabalegi andreak honako hau jakinarazi du:
- Estibaliz Albizu andrea bere lanaldi-murrizketa eta oporrak gozatzen ari da.
- Udarako antolatutako tailerrak martxan daude.
- Iaz ez bezala, aurten taldeak betetzea gehiago kostatu da.

MUSEOA:
- Ekainean, Museoan egondako bisitarien kopurua oso positiboa izan da.
- Bisita gidatuek harrera oso ona eduki dute; talde guztiak bete dira eta erreserba-zerrenda egon da. Hori dela eta, uztailean bisita gidatu gehiago egiteko aukera planteatu

**UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DE ACTA DE LA SESION ANTERIOR**
Una vez leída fue aprobada por unanimidad el acta del 15 de junio de 2021

**DOS.- DACIÓN DE CUENTAS DE VARIAS RESOLUCIONES DE LA PRESIDENTA**
La Presidenta da cuenta de las siguientes resoluciones:
- Resolución aprobación de la modificación presupuestaria 04/2021/MC, de fecha 01/06/2021
- Resolución de la aprobación de la contratación de Doña Nerea Gastón Tabera para la gestión de las redes sociales del Museo y la Biblioteca, de fecha 10/06/2021
- Resolución de la aprobación de la contratación de Vasa Climatización para la sustitución de placa electrónica y asistencia del equipo Stulz en el archivo, de fecha 14/06/2021
- Resolución de aprobación de la relación de facturas 6-1/2021 con fecha 15/06/2021
- Resolución de la aprobación de la nómina del mes de junio con fecha 25/06/2021
- Resolución del permiso para la realización de curso de formación a la responsable de Museo, de fecha 29/06/2021
- Resolución de aprobación de la relación de facturas 6-2/2021 con fecha 29/06/2021
- Resolución de los pagos :
  - Mantenimiento de los datáfonos del Museo y SAKG
  - Comisión cobros con tarjetas
  - Publicidad en facebook de actividades en la Biblioteca
  - Bombillas para el Museo
  - Lanas para taller en la Biblioteca

**TRES.- INFORME DE GESTIÓN**

BIBLIOTECA:
Doña Ane Abanzabalegi informa:
- Doña Estibaliz Albizu se encuentra disfrutando de la reduccción de su jornada laboral y de sus vacaciones.
- Se están llevando a cabo los talleres organizados para el verano
- Que a diferencia del año pasado este año ha costado llenar los grupos

MUSEO:
- El dato del número de visitantes al Museo en el mes de junio ha sido muy positivo.
- Las visitas guiadas han tenido muy buena acogida llenándose todos los grupos y quedando una lista de reserva. Por ello se está pensando en realizar más visitas guiadas en el mes

da.

- “Dohaintzak 2016-2021” erakusketa inauguratu da, azken bost urteetan egin diren dohaintzez osatua. Ez zen inaugurazio ofizialik egin, aretoaren aforoa bost pertsonakoa baino ez delako. Dohaintzaren bat egin duten pertsonei esker oneko gutun bat bidali zaie, eta, bertan, erakusketa egingo dela jakinarazi zaie.
- Emakume etorkinen elkarte batek Museoan bisita gidatua eskatu zuen. Bisita oso aberasgarria izan zen.
- L´Atelierrak ekitaldi bat egin zuen bere ikasleen lana aitortzeko.
- Udarako programatutako tailerrak martxan daude, baina ez dira harrera handia izaten ari.

Ane Abanzabalegi andreak adierazi duenez, kontuan hartuta liburutegiko tailerrekin gauza bera gertatu dela, datorren urtean tailer horiek nola bideratu hausnartu beharko da. Bere ustez, partaidetza baxu horren atzean honako arrazoi hau egon daiteke: uda honetan udalekuen eskaintza oso altua da eta, beraz, hautatzeko aukerak iazkoak baino askoz altuagoak dira.

SAKG:

- Aurreko urteetan ez bezala, ekainean ez da egon ikastetxe eta akademiek antolatutako ekitaldirik, ikasturte amaiera ospatzeko. Zirkin gimnasioak soilik antolatu ditu 16 saio, senideek eskolak nola ematen diren ikus dezaten.
- Ekainean, bi ikuskizun profesional egon dira: “Burdina”, martxoan bertan behera geratutakoa, eta “Futbolistok”, Kiroleneren lagapena.
- Ekainean hainbat lagapen egin dira; guztira, 22 egunetan erabili da aretoa.
- Txillida Lekun bilera bat egin zen, DAGAZ proiektuko partaidetzaren emaitza aztertzeko. Ondorioz, proiektura atxikita jarraitzea komeni den ala ez aztertzen ari da.

de julio.

- Se ha inaugurado la exposición “Donaciones 2016-2021” con las donaciones realizadas durante los últimos cinco años. No hubo inauguración oficial porque el aforo de la sala es unicamente de cinco personas. Se les ha envíado a los/as donantes una carta de agradecimiento y se les ha informado de la apertura de la exposición.
- Una asociación de mujeres inmigrantes solicitaron una visita guiada por el Museo. La visita resultó ser una visita muy enriquecedora
- L´talier realizó un acto de recococimiento a la labor de sus alumnos/as
- Se ha comenzado con los talleres programados para el verano, pero no están teniendo gran aceptación

Doña Ane Abanzabalegi indica que teniendo en cuenta que con los talleres de la biblioteca ha ocurrido lo mismo habrá que hacer una reflexión sobre como encauzar estos talleres el año que viene. Que piensa que la cuasa de la poca participación en ellos pueda ser que este verano la oferta de campamentos ha sido muy alta y por lo tanto el abanico de posibilidades de elección muy superior a las del año pasado.

SAKG:

- En el mes de junio no ha habido como en años anteriores actos organizados por colegios y academias para celebrar el final del curso. Unicamente el gimnasio Zirkin ha organizado 16 pases para que los/as familiares pudieran ver la impartición de las clases.
- En el mes de junio se han dado dos representaciones profesionales: “Burdina”, que se suspendió en marzo y “Futbolistok” que ha sido una cesión de Kirolene.
- Las cesiones en el mes de junio han sido numerosas, siendo los días utilizados 22.
- Después de la reunión mantenida en Txillida Leku para analizar el resultado de la participación en el proyecto DAGAZ, se está estudiando la conveniencia o no de seguir adheridos/as al proyecto

Ane Abanzabalegi andreak azaldu duenez, sormen-bekaren oinarriak BAOn argitaratzear daude.
Jon Sergio jaunak bekaren zenbatekoari buruz galdetu du. Ane Abanzabalegi andreak erantzun duenez, bekak 95.000 euroko zenbatekoa dauka, hainbat proiektutan banatuta.

Doña Ane Abanzabalegi informa de que las bases de la beca de creación están a punto de ser publicadas en el BOB
Don Jon Sergio pregunta el importe de la beca. Doña Ane Abanzabalegi le contesta que el montante es de 95.000 euros que se reparten en diferentes proyectos.

Gaineratu duenez, kontu-hartzaileak alde ekonomikoari oniritzia eman bezain pronto bidaliko zaizkie oinarriak batzarkideei.

Añade que en cuanto el interventor de la conformidad a la parte económica se les enviará a los/as presentes las bases

**LAU.- GALDE ESKAKIZUNAK**

**CUATRO- RUEGOS Y PREGUNTAS**

Eta aztertzeko gai gehiago ez dagoela ikusirik, presidenteak amaiera ematen dio batzarrari eta, nik, udaleko idazkaria naizen honek, akta jaso eta egiaztatu egiten dut.

No habiendo más asuntos que tratar, la Presidenta da por finalizada la sesión, levantándose la presente acta de todo lo cual yo, como Secretaria de la Comisión doy fe.

ASTARLOA KULTURGINTZA
DURANGOKO UDALA

**2021eko irailak 14**· 14 de septiembre de 2021

**LEHENDAKARIA · **Presidenta
Ane Abanzabalegi Areitio (EH Bildu)

**BATZARKIDEAK · **Asistentes
Mariam Bilbatua Perez (EH Bildu)
Juan Antonio Bueno (EH Bildu)
Neskutz Rodriguez (SQ-2D)
Francisco Javier López Lacunza (SQ-2D)
Jon Sergio Atxotegi (EAJ/PNV)
Mikel Ortega Marañón (EAJ/PNV)
Ainhoa Ortueta Etxebarria (EAJ/PNV)
Jesica Ruíz Pérez (PSE-EE) (Fernando Castillo Rodríguez jaunaren ordez)

**BERTARATU EZ DIRENAK · **Justifica ausencia

**KUDEATZAILEA · **Gerente

**PRESIDENTEAK BERAK GONBIDATUA · INVITADO/A A INSTANCIAS DE LA PRESIDENTE**
Arantza Arrazola , SAKGeko arduraduna/responsable de SAK
Garazi Arrizabalaga, Museoko arduraduna / responsable Museo
Estibaliz Albizu, Liburutegiko arduraduna / responsable de Biblioteca

**IDAZKARIA** · Secretario de la Comisión
Teresa Oleaga

**ORDEZKARI MODUAN DIHARDUENA**·
Inés Irigoras

| | |
|---|---|
| **Tokia** · Lugar: | Osoko Bilkura Aretoa |
| **Izaera** · Naturaleza: | Ohikoa · Ordinaria |
| **Hasiera ordua** · Hora de inicio: | 17:00 |
| **Amaiera ordua** · Hora Final: | 17:30 |

Batzordeko presidenteak, lehen deialdian, batzarrari hasiera eman ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntuak aztertu ditu:

Abierta la sesión, por la Presidenta de la Junta en primera convocatoria, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del Día y que son los siguientes:

**BAT.- AURREKO AKTAREN ZIRRIBORROA IRAKURTZEA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONARTZEA**

Irakurri eta gero, aho batez onartu da 2021eko uztailaren 6ko akta.

**BI.- PRESIDENTEAREN ZENBAIT EBAZPENEI BURUZKO KONTU EMATEA**

Batzordeko presidenteak honako ebazpen hauen berri eman du:

- Museoan “Akelarre” liburu eta erakusketarako dokumentazioa erreproduzitu dadila onartzen duen ebazpena, 2021-07-01ekoa.
- Kultura-sorkuntzarako bekak emateko deialdia arautzen duten oinarri zehatzak onartzen dituen ebazpena, 2021-07-12koa.
- 7-1/2021 faktura-zerrenda onartzeko ebazpena, 2021-07-15ekoa.
- Estibaliz Albizu andrea “Makers en la Biblioteca” ikastarora joan dadila onartzen duen ebazpena, 2021-07-16koa.
- 7-2/2021 faktura-zerrenda onartzeko ebazpena, 2021-07-31koa.
- Liburutegiko sarrerako hall-ean elementu xurgatzaile akustikoak instalatzeko ZANUS ESTUDIO S.L. enpresa kontratatu dadila onartzen duen ebazpena, 2021-07-23koa.
- Liburutegiko argia egokitzeko LUZ BILBAO S.A. enpresa kontratatu dadila onartzen duen ebazpena, 2021-07-26koa.
- Liburutegiko bigarren solairuan beirazko itxitura instalatzeko BZ2 ALAVA S.L. enpresa kontratatu dadila onartzen duen ebazpena, 2021-07-26koa.
- Uztaileko nomina onartzeko ebazpena, 2021-07-26koa.
- 2021. urteko atzerapenen (urtarrila-maiatza) nomina ordaindu dadila onartzen duen ebazpena, 2021-07-30ekoa.
- Ordainketen ebazpena:
    - Museoko eta SAKGko datafonoaren mantentze-kuota
    - BBKn kontu korronteak mantentzearen ziozko komisioa
    - Liburuak txartelarekin saltzearen ziozko komisioa

**HIRU.- KUDEAKETA TXOSTENA**

LIBURUTEGIA:

- Bibliopistinaren ordez, udako hilabeteetan hainbat tailer egin dira Uda Kulturaz Blai programaren barruan.
- Tailerretan, eskainitako plazen % 80 bete da.
- Irailaren 15ean, urri eta ekainaren artean garatuko diren jardueretan izena emateko epea zabalduko da.

**UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DE ACTA DE LA SESION ANTERIOR**

Una vez leída fue aprobada por unanimidad el acta del 6 de julio de 2021

**DOS.- DACIÓN DE CUENTAS DE VARIAS RESOLUCIONES DE LA PRESIDENTA**

La Presidenta da cuenta de las siguientes resoluciones:

- Resolución de aprobación de la reproducción de documentación para el libro y exposición “Akelarre” en el Museo, de fecha 01/07/2021
- Resolución de la aprobación de las bases específicas reguladoras de la convocatoria para la concesión de becas para la creación cultural, de fecha 12/07/2021
- Resolución de aprobación de la relación de facturas 7-1/2021 con fecha 15/07/2021
- Resolución de la aprobación de la asistencia de Doña Estibaliz Albizu al curso “Makers en la Biblioteca”, de fecha 16/07/2021
- Resolución de aprobación de la relación de facturas 7-2/2021, con fecha 31/07/2021
- Resolución de la contratación de ZANUS ESTUDIO S.L. para instalar elementos absorventes acústicos en el hall de entrada de la Biblioteca, de fecha 23/07/2021
- Resolución de la contratación de LUZ BILBAO, S.A., para acondicionar la iluminación de la BIblioteca, de fecha 26/07/2021.
- Resolución de la contratación de BZ2 ALAVA, S.L. para instalar un cerramiento acristalado en la segunda planta de la Biblioteca, de fecha 26/07/2021
- Resolución de la aprobación de la nómina del mes de julio con fecha 26/07/2021
- Resolución de la aprobación de la nómina de los atrasos del año 2021 (enero-mayo), de fecha 30/07/2021
- Resolución de los pagos :
    - Mantenimiento de los datáfonos del Museo y SAKG
    - Comisión por mantenimiento de las cuentas corrientes en BBK
    - Comisión por cobro de venta de libros con tarjeta

**TRES.- INFORME DE GESTIÓN**

BIBLIOTECA:

- En lugar de la bibliopiscina se han realizado varios talleres durante los meses de verano y dentro del programa Uda Kulturaz Blai.
- En los talleres la ocupación ha sido del 80% de las plazas ofertadas
- El 15 de septiembre se abre el plazo de inscripción para las actividades que se desarrollarán entre octubre y junio

- Ikasturte honetarako berrikuntzak honako hauek dira: komikiaren irakurketa-kluba, haurrentzako sormen-tailerrak, eta helduentzako idazketa sortzailearen tailerra.
- Irailean zehar, hainbat obra egingo dira: bigarren solairuan areto bat sortuko da jardueretarako, eta beheko solairuan isolamendu akustikoko panelak jarriko dira. Obra horien ondorioz, bigarren solairuko mahaiak (ordenagailuak konektatzeko aukera ematen zutenak) hirugarren solairura eraman dira.

Ainhoa Ortueta andreak lan horiek noiz amaituko diren galdetu du. Estibaliz Albizu andreak erantzun dionez, irailean amaituko dira.

- Las novedades para este curso son: un club de letura de cómic y talleres de creatividad para público infantil y taller de escritura creativa para público adulto
- Durante el mes de septiembre se realizarán los siguientes trabajos: la creación de una sala para actividades en la segunda planta y en la planta baja se colocarán paneles de aislamiento acústico. Con motivo de esta obra se han trasladado las mesas de la segunda planta, mesas donde se podían conectar ordenadores, a la tercera planta.

Doña Ainhoa Ortueta pregunta por la fecha de finalización de estas obras. Doña Estibaliz Albizu responde que durante el mes de septiembre finalizarán

MUSEOA:

- Abuztuan, amaitutzat eman dira “Regoyos, Durangoko begirada inpresionista” eta “Dohaintzak 2016-2021” erakusketak.
- Kontuan hartuta abuztuan Museoa hiru orduz bakarrik egoten dela zabalik, erakusketetara bertaratutakoen datuak oso positiboak izan direla esan daiteke.
- Uztailean eta abuztuan zehar bisita gidatuak eta tailerrak egin dira Uda Kulturaz Blai programaren barruan, baina ez da iazko arrakasta lortu.
- Irailean, EHUko Pinturaren Masterreko arte-ikasleekin lankidetzan, honako erakusketa inauguratu da: “Zer nahi duzu nitaz? Igel urdin bat besterik ez naiz”.

Ainhoa Ortueta andreak hurrengo erakusketak zeintzuk izango diren galdetu du. Garazi Arrizabalaga andreak honako hau erantzun du: Txelu Angoitiaren erakusketa bat Museoaren fatxadan; artxiboko hiru agiriren erakusketa, Ander Berrojalbiz jaunaren liburu berriaren argitalpenarekin lotuta, beheko solairuan; eta Amaia Lejarretaren beste erakusketa bat bigarren solairuko aretoan.

MUSEO:

- En agosto se han clausurado las exposiciones “Regoyos, una mirada impresionista de Durango” y “Donaciones 2016-2021”
- Teniendo en cuenta que en agosto el Museo unicamente abre tres horas, se puede decir que los datos de asistencia a las exposiciones han sido muy positivos
- Durante los meses de julio y agosto se han organizado visitas guiadas y talleres dentro del progrmam Uda Kulturaz Blai. y no se ha logrado el éxito del año anterior
- En septiembre, en colaboración con los alumnos de arte del Máster de Pintura de la UPV se inaugura la exposición “¿Qué quieres de mí Sólo soy una rana azul”.

Doña Ainoa Ortueta pregunta cuales son las próximas exposiciones. Doña Garazi Arrizabalaga responde: una exposición de Txelu Angoitia en la fachada del Museo,, exposición de tres documentos del archivo con motivo de la publicación del nuevo libro de Don Ander Berrojalbiz en la planta baja y otra de Amaia Lejarreta en la sala del segundo piso

SAKG:

- Udarako programatutako jarduera guztien artetik bakarra geratu behar izan da bertan behera.
- Eserlekuen batez besteko okupazioa % 85ekoa izan da; programaren azken edizioetan egondako okupazioaren antzera.
- Eguraldi onarekin emanaldiak egiteko aurreikusitako 4 espazioak erabili dira.

SAKG:

- De todas las actividades programadas para el verano unicamente se ha suspendido una
- La ocupación media de las butacas ha sido del 85%, porcentaje en línea con las últimas ediciones del programa
- Se han utilizado los 4 espacios previstos para realizar las actuaciones en caso de buen tiempo

- Udazkeneko denboraldia irailaren 18an hasiko da.
- Irailaren amaieran, sormen-bekarako proposamenak aurkezteko epea amaituko da.

- La temporada de otoño comenzará el 18 de septiembre
- Al final del mes de septiembre termina el plazo para presentar las propuestas para la Beca de Creación.

**LAU.- GALDE ESKAKIZUNAK**

SAKG eta Dantzaz Dantza elkartearen arteko lankidetza-hitzarmenarekin jarraitzeko erabakiari buruz galdetu du Ainhoa Ortueta andreak. Arantza Arrazola andreak erantzun duenez, lankidetza puntualak egiteko erabakia hartu da: tailerrak, ate irekiak, ikastaroak... Ondoren, emaitza aztertuko da.

Eta aztertzeko gai gehiago ez dagoela ikusirik, presidenteak amaiera ematen dio batzarrari eta, nik, udaleko idazkaria naizen honek, akta jaso eta egiaztatu egiten dut.

**CUATRO- RUEGOS Y PREGUNTAS**

Doña Ainhoa Ortueta pregunta por la decisión que ese ha tomado respecto a continuar con al convenio de colaboración de SAKG con la asociación de danza Dantzaz . Doña Arantza Arrazola responde que se ha tomado la decisión de realizar colaboraciones puntuales: talleres, jornada de puertas abiertas, alguna clase magistral, y analizar el resultado

No habiendo más asuntos que tratar, la Presidenta da por finalizada la sesión, levantándose la presente acta de todo lo cual yo, como Secretaria de la Comisión doy fe.

ASTARLOA
KULTURGINTZA
DURANGOKO UDALA

**2021eko urriak 5**· 5 de octubre de 2021

**LEHENDAKARIA · Presidenta**
Ane Abanzabalegi Areitio (EH Bildu)

**BATZARKIDEAK · Asistentes**
Mariam Bilbatua Perez (EH Bildu)
Juan Antonio Bueno (EH Bildu)
Jorge Varela ( SQ-2D)(Neskutz Rodriguez andearen ordez)
Jon Sergio Atxotegi (EAJ/PNV)
Mikel Ortega Marañón (EAJ/PNV)
Ainhoa Ortueta Etxebarria (EAJ/PNV)

**BERTARATU EZ DIRENAK · Justifica ausencia**
Fernando Castillo Rodríguez (PSE-EE)
Francisco Javier López Lacunza (SQ-2D)

**KUDEATZAILEA · Gerente**

**PRESIDENTEAK BERAK GONBIDATUA ·**
**INVITADO/A A INSTANCIAS DE LA PRESIDENTE**
Garazi Arrizabalaga, Museoko arduraduna / responsable Museo

**IDAZKARIA** · Secretario de la Comisión
Teresa Oleaga

**ORDEZKARI MODUAN DIHARDUENA**· Secretaria delegada
Inés Irigoras

| | |
|---|---|
| **Tokia** · Lugar: | Osoko Bilkuren Aretoa |
| **Izaera** · Naturaleza: | Ezohikoa - Extraord inaria |
| **Hasiera ordua** · Hora de inicio: | 12:00 |
| **Amaiera ordua** · Hora Final: | 12:30 |

Batzordeko presidenteak, lehen deialdian, batzarrari hasiera eman ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntuak aztertu ditu:

Abierta la sesión, por la Presidenta de la Junta en primera convocatoria, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del Día y que son los siguientes:

**BAT.- BIDEZKOA BALITZ, "DURANGO SOR(TZAILEEN)LEKU" KULTUR SORKUNTZARAKO BEKA EMATEKO EPAIMAHAIKIDEEN IZENDAPENAREN ONARPENA**

Ane Abanzabalegi andreak azaldu duenez, ezohiko deialdi hau egin da, "Durango Sor(tzaileen)leku" kultur sorkuntzarako beka emateko oinarrien arabera Batzorde honek aukeratu behar duelako epaimahaia. Kontuan hartuta Batzordearen ohiko bilera datorren astean egin beharko litzatekeela baina aste horretan zubia dela, eta, beraz, azarora arte ez dela bilerarik egongo, komenigarritzat jo da ezohiko deialdi hau egitea, epaimahaiak denbora nahikoa izan dezan aurkeztu diren proiektuak aztertzeko.

Garazi Arrizabalaga andreak azaldu du Astarloa Kulturgintzaren mahai teknikoak aurkeztutako epaimahai-proposamena, hala badagokio onar dadin. Mahai teknikoaren kideak, zehazki, Astarloa Kulturgintzako hiru teknikariak dira.

Honako hau azaldu du Garazi Arrizabalaga andreak:

- Irailaren 21ean, proiektuak aurkezteko epea amaitu zen.
- Proiektu batzuek forma desegokia dute edo dokumentazioa falta dute. Ondorioz, hamar egun dituzte kasuan kasuko arazoa konpontzeko.
- Guztira 39 proiektu aurkeztu dira:
    - 8 sorkuntza eszenikorako (antzerkia, dantza eta zirkua)
    - 3 ikus-entzunezko sorkuntzarako
    - 2 konposizio musikalen sorkuntzarako
    - 8 literatura eta ilustrazioko lanen sorkuntzarako
    - 10 obra plastiko eta grafikoen sorkuntzarako
    - 8 kultura proiektuetarako
- Bekaren zenbatekoarekin (95.000 euro) 19 proiekturi eman ahalko zaie laguntza.
- Musika sorkuntzetarako bekaren kasuan, bi proiektu baino ez dira aurkeztu eta aurrekontuetan jasotzen diren bekak hiru dira. Epaimahaia izango da soberan den aurrekontuarekin zer egin erabakiko duena.

Mahai teknikoak, kontuan hartuta beka honetan diziplina ugari sartzen direla eta epaimahaia ezagutza eta esperientzia handiko pertsonekin osatu behar dela, ez soilik sektore zehatz batekiko kideekin, honako proposamen hau egin du:

- Galder Perez jauna, kazetaria eta dramaturgoa. Hainbat lan egin ditu irratian eta lanean, gehienak kulturarekin eta sorkuntzarekin lotuta. Gaur egun, Euskadi Irratian eta Radio Euskadin kulturaren gaineko informazioaren arduraduna da.
- Miriam Romatet andrea: irakaskuntza ikasi zuen, Zumaiako Udaleko kulturako teknikaria da, eta Kultura eta Jaialdien Saileko zuzendaria da. Zumaiako Musika Jaialdiaren zuzendaria, Oxford erakusketa

**UNO.- APROBACION, SI PROCEDE DEL NOMBRAMIENTO DE LOS/AS COMPONENTES DEL JURADO PARA LA CONCESION DE LA BECA PARA LA CREACION CULTURAL "DURANGO SOR(TZAILEEN)LEKU**

Doña Ane Abanzabalegi explica que la convocatoria extraordinaria de esta reunión es debido a que según las bases para la concesión de la beca para la creación cultural "Durango Sor(tzaileen)leku" el jurado debe ser elegido por la Junta, y teniendo en cuenta que la semana que correspondería hacer la Junta ordinaria es la semana del puente ,y por la tanto no habría próxima junta hasta noviembre ha creído conveniente el reallizar una convocatoria extrordinaria para que así el jurado disponga de tiempo para analizar los proyectos presentados.

Cede la palabra a Doña Garazi Arrizabalaga para que realice la propuesta de jurado que presenta la mesa técnica de Astarloa Kulturgintza formada por las tres ténicas de Astarloa Kulturgintza, para su aprobación, si procede.

Doña Garazi Arrizabalaga informa:

- 21 de septiembre acabó el plazo de presentación de los proyectos
- Hay proyectos que presentan defectos de forma o falta de documentación y tienen plazo de diez días para solventar el problema
- Se han presentado 39 proyectos:
    - 8 para creación escénica (teatro, danza, circo)
    - 3 para creación de audiovisuales
    - 2 para creación de composiciones musicales
    - 8 para creación de obras lliterarias e ilustración
    - 10 para creación de obras plásticas y gráficas
    - 8 para proyectos culturales
- Con el importe de la Beca (95.000 euros) se podrán financiar 19 proyectos
- En el caso de la beca para creaciones musicales unicamnete se han presentado dos proyector y son tres las becas presupuestadas. Será el jurado el que decida qué hacer con el presupuesto sobrante

La propuesta de Jurado que hace la mesa técnica, teniendo en cuenta que es una beca que contempla distintas disciplinas y que el jurado tiene que estar formado por personas con amplios conocimientos y experiencia, no sólo en un sector concreto, es la siguiente:

- Don Galder Perez, periodista y dramaturgo. Ha realizado diferentes trabajos en radio y televisión, la mayoría relacionados con la cultura y la creatividad. Actualmente es el responsable de informacióncultural de Euskadi irratia y radio Euskadi
- Doña Miriam Romatet: posee estudios académicos de magisterio,.trabaja en el Ayuntamiento de Zumaia como técnica de cultura, siendo la directora del departamento de Cultura y festejos. Ha sido directora del festival de Música de Zumaia, coordinadora de la sala de exposiciones Oxford y miembro de

aretoaren koordinatzailea eta antzerkiaren munduko hainbat epaimahaiko kidea izan da.

- Xabier Gantzarain jauna, idazlea (narrazioa, artea) eta arte kritikaria. Hainbat hedabidetako kolaboratzailea eta liburuen azal askoren egilea. Gaur egun, Azkoitiko Dinamo sorkuntza zentroaren parte da.

Hirurak dira euskaldunak, eta, beraz, aurkeztutako proiektuak irakurtzeko erraztasuna izango dute, horietako gehienak euskaraz aurkeztu baitira.

Ainhoa Ortueta andreak adierazi duenez, Epaimahaia lau kidek osatuko zutela uste zuen. Garazi Arrizabalaga andreak erantzun dionez, epaimahaikideak lau dira. Laugarrena, zehazki, Astarloa Kulturgintzako presidentea da. Gainerako hirurak gaiaren gaineko adituak dira, eta, beraz, hiru horien gaineko proposamena da bozkatu beharrekoa.

Mahai teknikoak aurkeztutako epaimahai-proposamena bozkatzeari ekin zaio.
Bozkatu egin da, eta honako hau izan da emaitza:

- Aldeko botoak: Bildu (3); SQ-2D (1): EAJ-PNV (3)

Gobernu Batzordeak aho batez onartu du mahai teknikoak aurkeztutako epaimahai-proposamena.

diferentes jurados y tribunales en el mundo del teatro

- Don Xabier Gantzarain, escritor (narrativa, arte), y crítico de Arte. Colaborador de diversos medios de comunicación y autor de numerosas portadas de libros. En la actualidad forma parte del centro de Creación Dinamo de Azkoitia

Los tres son euskaldunes, lo cual facilitará la lectura de los proyectos  ya que la inmesa mayoría de ellos se han presentado en euskera.

Doña Ainhoa Ortueta apunta que pensaba que eran cuatro las personas que formaban el Jurado. Doña Garazi Arrizabalaga responde que el tribunal son cuatro personas , pero la cuarta es la Presidenta de Astarloa Kulturgintza y las otras tres son los/as entendidos/as en la materia y es la propuesta de esas tres personas la que traen a votación.

Se eleva a votación la propuesta de Jurado presentada por la mesa técnica.
Se procede a la votación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: Bildu (3); SQ-2D (1): EAJ-PNV (3)

La Junta de Gobierno aprueba por unanimidad la propuesta de Jurado presentada por la mesa técnica

**BI.- GALDE ESKAKIZUNAK**

Ane Abanzabalegi andreak azaldu duenez, urriko ohiko bilera ez da egingo. Azaroko bileran aurkeztuko dira iraileko eta urriko kudeaketa-txostenak.
Epaimahaiak beken esleipena ebazteko zenbat denbora beharko ote duen galdetu du Jon Sergio jaunak.
Ane Abanzabalegi andreak erantzun duenez, epaimahaiak abendura arte dauka bere ebazpena egiteko, baina ziurrenik data hori baino lehen ebatziko du.

**DOS- RUEGOS Y PREGUNTAS**

Doña Ane Abanzabalegi informa de que la reunión ordinaria del mes de octubre no se va a celebrar y que en la reunión de noviembre se presentarán los informes de gestión de septiembre y octubre.
Don Jon Sergio pregunta si se sabe el tiempo que tardará el jurado en resolver la adjudicación de las becas.
Doña Ane Abanzabalegi responde que tienen de plazo hasta diciembre, pero que es muy probable que se resuelva con anterioridad a esta fecha.

Eta aztertzeko gai gehiago ez dagoela ikusirik, presidenteak amaiera ematen dio batzarrari eta, nik, udaleko idazkaria naizen honek, akta jaso eta egiaztatu egiten dut.

No habiendo más asuntos que tratar, la Presidenta da por finalizada la sesión, levantándose la presente acta de todo lo cual yo, como Secretaria de la Comisión doy fe.

ASTARLOA KULTURGINTZA
DURANGOKO UDALA

**2021eko azaroak 11**· 11 de noviembre de 2021

**LEHENDAKARIA · Presidenta**
Juan Antonio Bueno Moreno (EH Bildu)

**BATZARKIDEAK · Asistentes**
Ima Garrastatxu Urbaneja
Mariam Bilbatua Perez (EH Bildu)
Francisco Javier López Lacunza (SQ-2D)
Jon Sergio Atxotegi (EAJ/PNV)
Mikel Ortega Marañón (EAJ/PNV)
Ainhoa Ortueta Etxebarria (EAJ/PNV)

**BERTARATU EZ DIRENAK · Justifica ausencia**
Neskutz Rodriguez Ormazabal(SQ-2D)
Fernando Castillo Rodríguez

**KUDEATZAILEA · Gerente**

**PRESIDENTEAK BERAK GONBIDATUA ·**
**INVITADO/A A INSTANCIAS DE LA PRESIDENTE**
Arantza Arrazola , SAKGeko arduraduna/responsable de SAKG
Garazi Arrizabalaga, Museoko arduraduna / responsable Museo
Estibaliz Albizu, Liburutegiko arduraduna / responsable de Biblioteca

**IDAZKARIA** · Secretario de la Comisión
Teresa Oleaga

**ORDEZKARI MODUAN DIHARDUENA**·Inés Irigoras

| | |
|---|---|
| **Tokia** · Lugar: | Osoko Bilkuren Aretoa |
| **Izaera** · Naturaleza: | Ohikoa · Ordinaria |
| **Hasiera ordua** · Hora de inicio: | 16:00 |
| **Amaiera ordua** · Hora Final: | 16:40 |

Batzordeko presidenteak, lehen deialdian, batzarrari hasiera eman ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntuak aztertu ditu:

Abierta la sesión, por la Presidenta de la Junta en primera convocatoria, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del Día y que son los siguientes:

**BAT.- AURREKO AKTAREN ZIRRIBORROA IRAKURTZEA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONARTZEA**

Irakurri ostean, aho batez onartu dira irailaren 14ko batzordearen akta eta urriaren 5eko ezohiko batzordearen akta.
Francisco Javier López jaunak Jorge Varela jaunaren abizena zuzendu dadila eskatu du, urriaren 5eko aktan Jorge García jartzen baitu.
Inés Irigoras andreak akatsa zuzenduko dela hitz eman du.

**UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DE ACTA DE LA SESION ANTERIOR**

Una vez leída fue aprobada por unanimidad el acta del 14 de septiembre y el acta de la Junta extraordinaria del 5 de octubre.
Don Francisco Javier López solicita sea corregido el apellido del Sr. Jorge Varela que en el acta del 5 de octubre aparece como Jorge García.
Doña Inés Irigoras se compromete a subsanar el error.

**BI.- PRESIDENTEAREN ZENBAIT EBAZPENEI BURUZKO KONTU EMATEA**

Ima Garrastatxu andreak azaldu duenez, Astarloa Kulturgintzako Batzordearen presidentzia Juan Antonio Bueno jaunari eskuordetzeko dekretua onartu da, Ane Abanzabalegi andreak amatasun-lizentzia hartu baitu.
Batzordeko presidenteak honako ebazpen hauen berri eman du:

- 8/2021 faktura-zerrenda onartzeko ebazpena, 2021-08-31koa
- 2016. urteko zor bat indargabetzeko ebazpena
- Liburutegiko arduradunaren jakinarazpen baten ziozko ordainketa onartu eta ordaintzeko ebazpena
- Aurrekontua aldatzeko 06/2021/MC ebazpena
- Iraileko nomina onartzeko ebazpena, 2021-09-26koa
- Ordainketen ebazpena:
  - Museoko eta SAKGeko datafonoaren mantentze-kuota
  - BBKn kontu korronteak mantentzearen ziozko komisioa
  - Liburuak eta sarrerak txartelarekin kobratzearen ziozko komisioa
  - Fruta eta fruitu lehorrak SAKGeko konpainientzat
  - SAKGeko prentsaurrekorako apaingarriak
  - Kafeak SAKGeko konpainientzat
  - Fruta eta gozokiak SAKGeko konpainientzat
  - Museoan saldutako merkataritza-bonoak
  - Erakusketako posterrak eusteko gomak
- 9/2021 faktura-zerrenda onartzeko ebazpena, 2021-09-30ekoa
- 10-1/2021 faktura-zerrenda onartzeko ebazpena, 2021-10-18koa
- Urriko nomina onartzeko ebazpena, 2021-10-26koa
- 10-2/2021 faktura-zerrenda onartzeko ebazpena, 2021-10-31koa
- Ordainketen ebazpena:

**DOS.- DACIÓN DE CUENTAS DE VARIAS RESOLUCIONES DE LA PRESIDENTA**

Doña Ima Garrastatxu da cuenta del decreto de la delegación de la presidencia de la Junta de Astarloa Kulturgintza en Don Juan Antonio Bueno por encontrarse Doña Ane Abanzabalegi con una licencia por maternidad
El Presidente da cuenta de las siguientes resoluciones:

- Resolución de aprobación de la relación de facturas 8/2021 con fecha 31/08/2021
- Resolución de anulación de una resulta del año 2016
- Resolución de aprobar y hacer efectivo el pago por una Comunicación de la responsable de la Biblioteca
- Resolución de la modificación presupuestaria 06/2021/MC
- Resolución de la aprobación de la nómina del mes de septiembre con fecha 26/09/2021
- Resolución de los pagos :
  - Mantenimiento de los datáfonos del Museo y SAKG
  - Comisión por mantenimiento de las cuentas corrientes en BBK
  - Comisión por cobro de venta de libros y entradas con tarjeta
  - Fruta y frutos secos para compañías de SAKG
  - Decoración para rueda de prensa de SAKG
  - Cafés para compañías de SAKG
  - Fruta y gominolas para compañías de SAKG
  - Bonos Comercio vendidos en el Museo
  - Gomas para sujetar posters de la exposición
- Resolución de aprobación de la relación de facturas 9/2021 con fecha 30/09/2021
- Resolución de aprobación de la relación de facturas 10-1/2021 con fecha 18/10/2021
- Resolución de la aprobación de la nómina del mes de octubre con fecha 26/10/2021
- Resolución de aprobación de la relación de facturas 10-2/2021 con fecha 31/10/2021
- Resolución de los pagos :

- Museoko eta SAKGeko datafonoaren mantentze-kuota
- Kreditu-txartelaren mantentze-kuota
- Liburuak eta sarrerak txartelarekin kobratzearen ziozko komisioa
- Astarloaren kartillaren mantentze-kuota
- Museoan arteterapia-tailerra egiteko materiala

- Mantenimiento de los datáfonos del Museo y SAKG
- Mantenimiento de la tarjeta de crédito
- Comisión por cobro de venta de libros y entradas con tarjeta
- Mantenimiento de la cartilla de Astarloa
- Material para taller de arteterapia en le Museo

**HIRU.- KUDEAKETA TXOSTENA**

LIBURUTEGIA:

- Ikasturte berrian jarduerak egiteko, 157 plazatarako guztira 315 inskripzio egin dira.
- Jarduaretarako areto berri bat dago 2. solairuan, obra amaituta.
- Urrian, irakurketa errazeko 4 klub jarri dira martxan, Gizarte Ekintzaren Arloarekin, Pertsona Nagusien Arloarekin eta Hezkuntza Arloarekin koordinatuta.
- Immigrazioko teknikariarekin batera, Book trailer lehiaketaren proiektuari buruzko jakinarazpena aurkeztu da Haur eta Gazte Literaturaren Nazioarteko I. Kongresuan.
- Tabakalerak, Koldo Mitxelenak eta Donostiako Liburutegien Sareak antolatutako jardunaldi profesionaletan, etorkinekin batera proiektua azaltzeko gonbidapena.
- Azaroan, “Bideak gurutzatuz” ekimenaren edizioa egingo da, gai nagusitzat gazte migratzaileak hartuta.

MUSEOA:

- Erakusketetan bisitarien kopurua igo egin da, erakusketetan agertzen diren artistak bertakoak direlako.
- Irailean, EHUko Pintura Masterreko bi arte-ikasleren erakusketa inauguratu zen: Marcos Rico eta Edurne Naberanena.
- Urrian, hiru erakusketa inauguratu dira:
  - GIZA MAPA 2021, Txelu Angoitiarena.
  - Akelarre baterako 3 dokumentu, Ander Berrojalbizena.
  - Gogotzen, Amaia Lejarretarena.
- Newmediako ekoizleek Museoa erabili zuten dokumental bat grabatzeko.
- Bi bisita gidatu egin dira Fray Juan de Zumarraga Institutuarentzat.

**TRES.- INFORME DE GESTIÓN**

BIBLIOTECA:

- Para la realización de actividades en el nuevo curso se han realizado un total de 315 inscripciones para 157 plazas.
- Se dispone de una nueva sala para actividades en el 2º piso una vez finalizada la obra
- Durante el mes de octubre se ha puesto en marcha 4 clubes de Lectura Fácil en coordinación con el área de Acción Social, área de Personanas Mayores y área de educación del ayuntamiento
- Junto a la técnica de Inmigración se ha presentado una comunicación sobre el proyecto del concurso Book trailer en el I Congreso internacional de Literatura infantil y Juvenil
- Invitación para exponer el proyecto con el colectivo de inmigrantes en las jornadas profesionales organizadas por Tabakalera, Koldo Mitxelena y la red de bibliotecas de San Sebastian.
- En noviembre se celebrará la nueva edición “Cruzando caminos”, siendo el tema central los jóvenes migrantes

MUSEO:

- Hay un aumento en el número de visitantes a las exposiciones.El motivo es que los artistas que exponen son artistas locales.
- En septiembre se inauguró una exposición con dos estudiantes de arte del Master de Pintura de la UPV/EHU: Marcos Rico y Edurne Naberan
- En el mes de octubre se han inaugurado tres exposiciones:
  - Mapa HUMANO 2021 de Txelu Angoitia
  - 3 documentos para un akelarre de Ander Berrojalbiz
  - Gogotzen de Amaia Lejarreta
- Los productores de Newmedia utilizaron el Museo para grabar un documental
- Se han realizado dos visitas guiadas para el Instituto Fray Juan de Zumarraga
- Se ha organizado una actividad dentro

- Europako Ondarearen Jardunaldien barruan, jarduera bat antolatu da: arteterapia-tailerra GeuBeko neska-mutilekin.
- Ander Berrojalbizen Akelarre liburua aurkeztu da.
- Azaroan, honakoak egongo dira:
  - Krimenaren Historia Zentroaren Nazioarteko XIX. Kongresua.
  - Bisita gidatuak “Akelarre baterako hiru dokumentu” erakusketara.
  - Sormen-tailerrak, Berbaro Elkartearen eskutik.
- Abenduan, erakusketa bat inauguratuko da, museoko bildumako obrekin: Mari Puri Herrerorekin berbetan.

de las Jornadas del Patrimonio Europeo: taller de arteterapia con chicos y chicas de GeuBe
- Se ha presentado el libro Akelarre de Ander Berrojalbiz
- En noviembre se celebrará:
  - el XIX congreso Internacional del Centro de Historia del Crimen
  - Visitas guiadas de la exposición Tres documentos para un Akelarre
  - Talleres de creatividad organizados por Berbaro elkartea
- En diciembre se inaugurará una exposición con obras de la colección del museo: Conversaciones con Mari Puri Herrero

SAKG:
- Pandemiaren ostean, ikusleen kopurua murriztu egin da: aurreikusitako aforoaren % 50 inguru.
- Aretoaren okupazio-maila altua izan da: 27 lagapen irailean eta 38 urrian.
- Antzokiko hallean, Garabidek hizkuntza indigenei buruzko erakusketa bat egin eta dinamizatu du.
- Aretoa kultura-arlokoak ez diren hainbat ekintza egiteko erabili da: bilerak, prestakuntza-saioak, sari-banaketak...
- Urte amaierara bitartean dauden gairik esanguratsuenak honako hauek dira:
  - Udazkeneko programazioa garatzea
  - Berbaroren Haur Literatura Aretoak saioak
  - Durangoko Azokako Szenatokia antolatzea
  - Udaberriko programazioa prestatzea
  - Bazkideak berritzeko kanpainarekin hastea

SAKG:
- Después de la pandemia se ha notado una disminución de la afluencia de espectadores, alrededor de un 50% del aforo previsto
- Alto grado de ocupación de la sala con 27 cesiones en septiembre y 38 en octubre
- En el hall del teatro la asociación Garabide ha expuesto y dinamizado una exposición sobre lenguas indígenas
- Se ha utilizado la sala para diversos actor no culturales: reuniones, sesiones formativas, entrega de premios
- Los temas más relevantes hasta final de año son:
  - Atender la programación de otoño
  - Sesiones de Hur Literatur Aretoa de Berbaro
  - Organizar Szenatoki de Durangoko Azoka
  - Preparar la programación de primavera
  - Comenzar con la campaña de renovación de asociados/as

**LAU.- SORMEN BEKAK ESLEITZEKO EBAZPEN PROPOSAMENA, BALORAZIORAKO BATZORDE TEKNIKOAREN TXOSTENA IRAKURRI ONDOREN**

Arantza Arrazola andreak azaldu duenez, epaimahaikide batzuk Museoan bildu ziren, proiektuen puntuazioak biltzeko. Zehazki, Miriam Romatet andrea eta Xabier Galtzarain jauna bildu ziren, Arantza Arrazola andreak idazkari-lanak egin bitartean. Bestalde, Galder Perez

**CUATRO_ PROPUESTA DE RESOLUCION DE ADJUDICACION DE LAS BECAS PARA LA CREACIÓN CULTURAL PREVIO INFORME DE LA COMISION TECNICA DE VALORACION**

Doña Arantza Arrazola informa de que parte del jurado se reunió en el Museo para proceder a la recopilación de puntuaciones de los proyectos. Las personas que se reunieron fueron Doña Miriam Romatet y Xabier Galtzarain, actuando como secretaria Doña Arantza Arrazola. Excusan su

jaunak eta Ane Abanzabalegi andreak ezin izan zuten bertaratu, eta, beraz, beren balorazio-puntuazioak sinatuta helarazi zizkioten idazkariari.
Epaimahaikide bakoitzak gehienez 100 puntu ema ditzake. Beren balorazioetako bakoitzaren batura da proiektu bakoitzak jasotzen duen puntuazio osoa, gehienez ere 400 puntu lortu ahal direlarik. Zenbaketa orokorrean 200 puntu gainditzen dituzten proiektuak soilik pasatu dira balorazio-fasera.
Arantza Arrazola andreak proiektuen banako balorazioen eta behin betiko balorazioen berri eman du. Halaber, proiektu bakoitzari esleitutako zenbatekoa ere azaldu du, bai eta 1. gutun-azalaren irekiera ere, proiektu bakoitzaren titularrak ezagutzeko aukera eman duena.
Azaldu duenez, musikaren atalean sobratutako dirua arte grafikoen atalera pasatzea erabaki du epaimahaiak. Izan ere, azken atal horretan aurkeztu da proiektu gehien.
Juan Antonio Bueno jaunak bertaratutako kideei galdetu die ea zalantzarik argitu nahi duten.
Bertaratu guztiek adierazi dute ados daudela epaimahaiaren txostenarekin.

**BOST.- GALDE-ESKAKIZUNAK**

Jon Sergio jaunak galdetu du ea Batzorde honen ordu eta egun aldaketa behin betikoa den. Juan Antonio Bueno jaunak erantzun duenez, aparteko aldaketa baten ondorioz hartu da erabaki hori, Batzordeak beka ematen duen Epaimahaiaren txosten teknikoa ezagutu dezan, ahalik eta lasterren.

Eta aztertzeko gai gehiago ez dagoela ikusirik, presidenteak amaiera ematen dio batzarrari eta, nik, udaleko idazkaria naizen honek, akta jaso eta egiaztatu egiten dut.

ausencia a la reunión Don Galder Perez y Doña Ane Abanzabalegi y hacen llegar sus puntuaciones de valoración firmadas a la secretaria.
Cada miembro del jurado puntúa hasta un máximo de 100 puntos y la suma de cada una de sus valoraciones será la puntuación total que reciba cada proyecto siendo 400 puntos el máximo que puede conseguir, y únicamnete pasará a la fase de valoración aquellos proyectos que superen los 200 puntos en el cómputo global
Doña Arantza Arrazola da cuenta de las valoraciones individuales y de la valoración final y definitiva de los proyectos. También da cuenta de la asignación económica a cada proyecto y de la apertura del sobre 1 para conocer a la persona titular de cada proyecto.
Informa de la decisión del jurado de transferir la cantidad sobrante del apartado de música al apartado de artes gráficas, que es el apartado al que se han presentado más número de proyectos
Don Juan Antonio Bueno pregunta a los/as presentes si quieren aclarar dudas.
Todos/as presentes muestran su conformidad con el informe del jurado.

**CINCO- RUEGOS Y PREGUNTAS**

Don Jon Sergio pregunta si el cambio de día y hora de esta junta va a permanecer en el tiempo o ha sido algo extraordinario. Don Juan Antonio Bueno le responde que el cambio ha sido un cambio extrordinario para que la junta pudiera tener conocimiento del informe técnico del Tribunal que otorga la beca en la máxima brevedad

No habiendo más asuntos que tratar, la Presidenta da por finalizada la sesión, levantándose la presente acta de todo lo cual yo, como Secretaria de la Comisión doy fe.